

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA-2021-URRIA-432.ZENBAKIA

KARKARA


ZENBAKI HONEKIN BATERA

+ GUKA ALDIZKARIA



HERRIO NATUR TALDEA

KONTZIENTZIA EKOLOGISTAREN AKUILU



22, 26, 28,
49, 55 eta 60
eserleku dituzten
literadun autobusak
ditugu.

Bidaia eta ezkontzetara edo
sagardotegira joateko.

**Ubegun industria gunea, 4
AIA-ORIO**
943-13 28 93 · 656 78 29 99 (Gabino)
Fax-a: 943-89 05 62
alustiza@autocaresalustiza.com



Olaskoegia z/g
AIA-ORIO
943-13 04 38

ANORGA TXIKI, S.L.
KRISTALDEGIA

Oria etorbidea, 4
LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com
www.cristaleriaanorgatxiki.com
943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak



Lurretik
Garbiketak
SERVICIO INTEGRAL DE LIMPIEZA

- Garbiketa orokorrak
- Etxebizitzak
- Bulegoak
- Obra amaierak
- Garajeak
- Ostalaritza

Santio erreka 41, Aia-Orio
636 18 82 92 / info@lurretik.es

edaritegia **Antilla** *jatetxea*

Abeslari kalea, 2
ORIO
943-83 23 09

- Menuak
- Plater konbinatuak
- Errazioak
- Ogitaratekoak

Pelotari, 5 · ORIO
943-83 00 34
autolan13@hotmail.com

AUTO - LAN C. B.



arkaitz taberna
... uio ...

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

*Terma ederrarekin
giro ezin hobea*

abeslari kalea 6 - 943-83 16 57



Zerbitzu teknikoak
24 ordu

iturgintza · gasa · berogailuak

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoaren instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dutxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

Arrantzale kalea, 3 · ORIO
fontana-jul@hotmail.es
www.fontaneria-fontana.com
943-53 98 88 · 661 26 28 28

azkue
karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7
AIA-ORIO
943-83 51 86

Carmen eta Txomin
ARRAINDEGIAK



TXOMIN ARRAINDEGIA
Eusko Gudariaren kalea, 44
943-83 27 47

CARMEN ARRAINDEGIA
Arizaga kalea
943-83 05 37



KARKARA 432

2021-URRIA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|--|
| 5 | Iritzia Iñigo Gaiton
<i>Bidea irekitzen</i> | 26 | Oroimenaren kutxa Iñaki Iturain
<i>Oteizaren hitz beteak</i> |
| 6 | Hitz tantak Onintza Lete Arrieta
<i>Arantxa Satrustegi</i> | 31 | Osasuna Kamel Ziani eta Aitor Rubio
<i>Aletismoaren onurak</i> |
| 8 | Izpiak eta hizkiak Iban Egiguren
<i>Trenaren zubia eta behe-lainoa</i> | 32 | Erreportajea Aritz Pardina
<i>Ekintzaileak, herri bikietan</i> |
| 11 | Gutunak | 38 | Iritzia Garbiñe Manterola
<i>Gauzak</i> |
| 12 | Herrian galdezka | 39 | Euskara EH Bildu / EAJ PNV |
| 18 | Erreportajea Aritz Pardina
<i>Herrio Natur Taldea</i> | 42 | Plazan bazan |
| 22 | Publirreportajea
<i>ZainBizi</i> | 44 | Zerbitzuak |
| 24 | Bazkide kluba | 45 | Agenda |
| 25 | Ikasleak idazle
Orioko Herri Ikastola | 46 | Hasi bertsotan Josu Iribar |

KARKARA



Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-83 15 27
karkara@karkara.eus
www.karkara.eus
Lehendakaria
Rikardo Uzkudun

Erredaktoreburua

Onintza Lete Arrieta
Iñigo Gaiton
Erredaktore taldea
Iñigo Gaiton
Dorleta Agiriano Lai
Onintza Lete Arrieta
Onintza Aiestaran
Elizabete Manterola
Rikardo Uzkudun

Diseinu arduraduna

Maria Lopez
Publizitatea
Leire Martija
Zenbaki honetako
kolaboratzaileak
Iñaki Iturain
Kamel Ziani
Aitor Rubio
Saioa Perona

Aritz Mutiozabal
Aritz Pardina
Garbiñe Manterola
Iban Egiguren
Banatzaleak
Endika Ruiz (Orio)
Manex Dorronsoro (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-346/90
ISSN: 1132-1105
Tirada: 3.450 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



AIAKO
udala



BODEGAS
Gailur
01307 BANCOS de EBRO
Tel./Fax 915 20 91 58
www.bodegasgailur.com
Arabar Errioxa



ZUDUGARAI
Gabriel's Tradition
DENOMINACION DE ORIGEN
Tel.: 943-83 03 86 · Fax-a: 943-83 59 52
txakolizudugarai@euskalnet.net · www.txakolizudugarai.com



Gabon
TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7
943-83 06 09



IGLESIAS SARRAILAGILEAK
iglesiascerrajeros@yahoo.es
www.iglesiascerrajeros.com
Erribera kalea, 14 · ORIO
637 72 33 08

24orduko zerbitzua

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua



GARMENDIA
Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak

943-83 44 66 · 688 75 59 48
Ibai Ondo, 1 · ORIO
info@egarmendia.com




Joseba
AROTEGIA · CARPINTERIA
687 683 427
josebaarotza@gmail.com

**ATEAK
ZOKALOAK
ARMAIRUAK NEURRIRA
LEIHOAK
ESKAILERAK
AROTEGIA OROKORREAN**



**ITZIAR
KIROLAK**

Eusko Gudarien kalea, 23
ORIO
943-83 31 03



KAIOA
kaioa_denda
www.kaioa.es



Kolon Txiki
edaritegia · jatetxea

Herriko Enparantza 4
ORIO
Tel.: 943-83 00 44




PIZZERIA KALETA
%100 etxean egina
Arrantza kalea, 10
943-24 89 46



kutixi
kafetegia

Aritzaga 9 · ORIO · 943-13 15 17



LASTER DESATASCOS

- Libraketak
- Hobi septiko eta putzu beltzen garbiketa
- Uholdeetako uren hustuketa
- Teilatu hodian garbiketa
- Saneamendu sareen ikuskapena
- Puzkatutako hobien geolokalizazioa
- Ur jario atzematea
- ...

desatascos@desatascoslaster.com
www.desatascos.com
24orduz 688 88 65 36 (Larrialdia)

Abaromendi 3, 20810 ORIO · Sagar Erreka 21-A, 20590 SORALUZE · 943-75 14 31 (bulegoa)

Bidea irekitzen



IÑIGO GAITON

Neska eta mutil koskor asko hasi da surfean azken urteotan. Urte gutxirekin, orduak eta orduak egiten dituzte uretan edo hondartza aldean, olatu gainean ez bada haiei begira. Adi-adi egonda, zentzumenak fintzen hasten dira oso gaztetatik, eta hazten joan ahala, ingurune naturalaren etengabeko mugimenduak irakurtzen ikasten dute: mareen gorabeherak, haize aldaketak, itsasaldien joan-etorriak...

Irakurketa hori ondo egindakoa, bueltan jasotako saria bikaina izan daiteke: surfean gozamen bete-betea dastatzea. Beste batzuetan, aldiz, atsekabetuta itzuliko da etxera gaztetxoa, naturarengandik esperotakoa jaso gabe. Horrek duen balioa ere handia da, etorkizunera begira batez ere: surflariak umetatik ikasi eta barneratuko du naturarena dela indar handiena, eta onerako edo txarrerako, harena dela azken hitza.

Inguruan izan ohi ditudalako aipatu ditut surflariak, baina arraunlariak ere ekar nitzake testura; umetatik Itsaspe edo Kukuarri aldean ibili diren mendizaleak ere bai; edota errioaren bueltan korrika aritzen direnak. Zaku berean sartzen ditut denak: Orioren ingurune natural ederrean eta harekin batera bizitzen ikasi dutenen taldean.

Multzo horretako lagunak balio erantsia duten herritarrak direla ikasi dut denborarekin: eguneroko bizitzako edozein egun grisetan ere, herrian bertan badute zer gozatua. Hau da, bizi kalitate hobea eta zorion une gehiago izaten dituzte eskura. Geroago, kasu batzuetan, naturarekin gozatzen ikasten dutenek urratsa ematen dute aurrera, eta benetan maite dutena zaintzen ere hasten dira.

Herrio natur taldeko kideei aspaldi piztu zitzaien kontzientzia ekologista. Haien sentsibiltateak bultzatuta, azkar ibili ziren, eta ordutik, ia gehienon aurretik joan dira. Taldeak ia 20 urte daramatza lanean, eta aitortza merezi dute. Boluntario lanean aritu dira, xuxen-xuxen eta etenik gabe herrigintzan. Jarraikortasun horrek, gainera, meritua handia du. Politikarien aldetik ezezkoak entzundakoak dira behin baino gehiagotan, eta jendarteak ere bizkarra eman die sarri. Gogorra egingo zitzaien bidea irekitzea. Gogorra oso, hain argi ikusten zutena azaltzen saiatu eta bueltan erantzun antzuak jasotzea.

Hori guztia aurka izan arren, lanari eusteko indarra izan dute Herriokoek, eta denborak arrazoia eman die: klima aldaketa ukaezina da, eta ingurumenaren aldeko borroka hil ala bizikoa.

Aldizkariko erreportajea irakur daitekeen modura, taldeak etorkizunera begirako perspektiba handiarekin jarraitzen du lanean. Ezinbestean, haien ahotsa entzunagoa izango da aurrerantzean. ■■■

**HERRIOKOAK ASPALDI
HASI ZIREN LANEAN,
ETA AURRETIK JOAN
DIRA INGURUMENAREN
ALDEKO BORROKAN**

Arantxa Satrustegi

TESTUA ETA ARGAZKIA: ONINTZA LETE ARRIETA

Lore-arteak ez da ohiko ofizioa, ezta ohiko negozioa ere herri txiki batetan. Arantxa Satrustegik (Orio, 1968) gogoko ditu landareak eta horiekin konposizioak egitea, eta loradenda dauka Orioko erdigunean duela hogeitaz urte baino gehiagotik. Pandemiak ez dio kalterik egin; alderantziz, izurriteak jende asko jarri du etxe barrura eta balkoi nahiz terrazetara begira, eta lan asko izan dute hilabete hauetan.

Jendearen gustuak aldatuko ziren denda zabaldu zenuenetik, ala?

Beti doaz aldatzen, modak izaten dira. Momentu honetan, adibidez, modan daude zuri, beltz, gris eta beix koloreak; ez dago beste ezer. Eta neuri ez zait gustatzen hain itxia egotea koloreei, eta kolore bila aritzen naiz. Andregaiak lore-sortetan ere aldatu dira joerak; lehen beherantz erortzen ziren sortak zeuden modan, eta orain oso arraroa da horrelakoak egitea, sorta txikiak egiten dira.

Kolorez eta lurrinez inguratuta, lan atsegina dirudi.

Gogorrena zer da?

Ordutegia. Gainerakoan, asko gustatzen zait nire lana, oso gustuko dut sortak eta apaingarriak egitea. Landareei kontu egitea ere asko gustatzen zait, etxean ere landare mordoak dut.

Azken hilabeteetan, derrigorrean etxe barruetara begira jarri dira herritarrak. Zuentzat pandemia ona izan da zentzu horretan?

Denak du bere alde ona eta txarra, eta guretzat ona izan da lanari begira. Jendea etxea txukuntzeko eta polit jartzeko gogoz ibili da, eta asko saldu da.

Oriotarrek zer gustu dituzte lore kontuetan?

Kolore horia asko saltzen da. Loreak erostera joaten naizenean, beti esaten dute: “Hemen dator oriotarra”. Kalanchoe landarea, esaterako, kolore desberdinetan ekartzen dute, baina hori kolorekoak han gelditzen zaizkie, eta nik erosten dizkiet guztiak. Kala horiak ere nik ekartzen ditut gehienbat.

Aiarren eta oriotarren artean desberdintasunik bai? Batere ez.

Adinaren arabera aldatuko dira gustuak.

Askok. Adibidez, adineko batzuei orkideak ez zaizkie batere gustatzen; aldiz, oso gustuko dituzte anturium deiturikoak, eta gazteek, berriz, ez dute hainbeste erosten landare hori; errazago erosten dituzte orkideak. Kanporako landareetan ere, helduagoak geranioak erosten dituzte, eta gazteek ere bai azkenerako, ikusten dutelako oso politak gelditzen direla, baina beste kolore batzuk, edo beste estilo bat nahi izaten dute.

Udazkena iritsi zaigu. Orain zer landare tokatzen dira?

Geranioek, adibidez, urte osoa irauten dute, baina uda ondoren ez dituzu aurkituko haztegiak; ez dira saltzen. Orain ziklamenak, azaleak, neguko loreak daude. Udazkena beroa suertatzen bada sufritu egiten dute: iparraldean jarrita ondo egoten dira, baina hegoaldean jartzeaz, itxaron egin behar da pixka bat.

Aholkurik?

Kontuz urarekin; normalean itotzeagatik hiltzen dira-eta landareak. ■■■



Trenaren zubia eta behe-lainoa

ARGAZKIA ETA TESTUA: IBAN EGIGUREN

Arkitektura eta hirigintza alorreko argazkiak egitea tokatzen zait tarteka, bezeroek hala eskatuta. Kasu honetan, plazer hutsagatik egin nuen fotoa erriaren beste aldean, egun hartako behe-laino lanbroa aprobetxatuz. Editatzerakoan, irudia zuri-beltzera pasatuta indar gehiago izan zezakeela pentsatu nuen, eta asmatu egin nuela iruditzen zait. Trena pasatzen den zubia da konposizioaren ardatza. Eraikuntzaren lerroek sakontasuna ematen diote argazkiari, ikuslearen begirada hara bideratuz. Erriberako ura geldi-geldirik ageri da, eta efektu polita egiten du ur azalean sortzen den isladak. ■■■





euskaraz gazte

literatur lehiaketa

20
21

1. 'Euskaraz Gazte' literatur lehiaketaren helburua idazteko zaletasuna suspertzea da Orioko eta Aiako jendearen artean.
2. Lehiaketara aurkezten diren lanak euskaraz idatziak izango dira.
3. Lanak jatorrizkoak eta inon argitaratu gabeak izango dira. Ez da onartuko beste lehiaketaren batean saria jaso duen lanik eta, ezta ere, beste hizkuntzaren batean idatzi eta lehiaketarako euskaratutakorik.
4. Lehiaketan parte hartzeko, oriotarra edo aiarra izan behar da edo, bestela, Orion edo Aian bizi, eta 16 urte beteta izan behar dira.
5. Lanen luzera librea izango da.
6. Epaimahaia gaiaren gertutasuna baloratuko du.
7. Lehiaketak bi atal izango ditu: ipuina eta bertsoa (edo olerkia).
8. Gaia librea izango da.
9. Lanak aurkezteko era:
Lanak, onartua izateko, titulua besterik ez du izango agerian. Idazlearen izena ezin izango da inon aipatu. Lanarekin batera gutun-azal itxi bat aurkeztu beharko da, barruan egilearen datuak jasoko dituen eta kanpoan bere lanaren titulua besterik agertuko ez duena.
Adierazi beharreko datuak: egilearen izen-deiturak, adina, helbide elektronikoa eta telefonoa.
10. Pertsona batek ezin dezake sari bat baino gehiago jaso atal bakoitzean.
11. Sariak hauek izango dira:
Ipuinen atala
 - 1. saria: 300 euro
 - 2. saria: 200 euro
 - 3. saria: 150 euro
 - Bi accesit, bakoitza 100 eurokoaBertso edo olerkien atala
 - 1. saria: 300 euro
 - 2. saria: 200 euro
 - 3. saria: 150 euro
 - Bi accesit, bakoitza 100 eurokoa
12. Epaimahaia. Epaimahaia Orioko Udaleko euskara-teknikariak, Aiako kultur teknikariak eta KARKARA aldizkariako kide batek osatuko dute. Epaimahaia hutsik utz ditzake sariak.
13. Lanak aurkezteko tokia eta epea. Lanak Orioko Udaleko Euskara Zerbitzuan edo Aiako kultur etxean aurkeztuko dira. 2021eko azaroaren 15a izango da horretarako azken eguna.
14. Antolatzaileek berea izango dute saritutako lanak argitaratzeko eskubidea. Gainontzeko lanak itzulí egingo zaizkio eskatzen dituenari.

Orioko emakumeon* ahalduntze eskolatik

ORIOKO EMAKUMEON* AHALDUNTZE ESKOLA

Orioko emakumeon* ahalduntze eskolaren bigarren ikasturtea martxan dugu! Bi urte pasa dira Orioko emakumeon* beharren diagnostikoa osatzeko herriko hainbat emakumeekin elkartu ginenetik, ederra izan zen! eta gogorra ere bai...

Orioko emakumeok herria, kalea, orokorrean eremu publikoa, bizitzen dugun modua positiboa ez dela ondorioztatu baikenuen, aurrez bagenekien emakumeek eta gizonek ez dugula kalitatezko aisialdi denbora berbera, eremu publikoa eta pribatua oso desberdin bizitzen ditugula eta gure herria tradizioari oso lotutako herri bat dela. Baina, hala eta guztiz ere diagnostikoan bildu genituen baieztapen zuzenak eta kritikoak ez genituen espero.

Guretzat positiboa izan zen, ikusi genuelako bazegoela haserre bat, bazegoela emakumeok* geure buruari egiten genion aitortza bat, ikusi

BERDINTASUN DIAGNOSTIKOA EGITEN ARI DA UDALA, ETORKIZUNeko EKINTZAK ZEHAZTEN JOATEKO



Ahalduntze Eskolak antolatutako ekimen bat.

genuen gogoia zegoela aldatzeko. Bazegoela guk hainbatetan zalantzan jarri izan dugun indar feminista bat gure errailetan.

Zalantzarik ez zegoen, Orion politika feministak abiarazi behar ziren eta lehenengo pasua herrian emakumei zuzendutako ahalduntze eskola bat martxan jartzea izan da. Aurten berdintasun diagnostikoa egiten ari da udala aurrera begirako berdintasun ekintzak zehazteko pistak jasotzeko, bagoaz aurrera. Antolatzen ditugun ikastaroez gain, emakume, jakin ezazue zuek guztiokin egoteko irekita gaudela, zuen iritziak, beharrak, kexak, ametsak entzun nahi ditugu; pixkanaka-pixkanaka sare more bat egin nahi dugu, guztiok elkartuta bakarrik lortu baitezakegu gure askotariko moduetara egokituko den herri bat. ■■■

Ostargi martxan

OSTARGI ELKARTEA

Ostargin hasi dugu ikasturte berria, eta oraingoan ere, ikastaro desberdinak jarri ditugu martxan: patchwork, quilling, kakorrazt-lan eta pintura tailerrak emango ditugu, hain zuzen ere. Horiez gain, jostintzan aritzeko zenbait talde ere sortu ditugu; besteak beste, patroiak egiten trebatzeko eta baserritar jantziak egiteko.

Izena emateko, jarri gurekin harremanetan.

Animatu! ■■■

JAIOPERRIAK

- **Alaia Garmendia Gonzalez.** Orion, uztailaren 21ean.
- **Fatou Kine Ndiaye.** Orion, irailaren 3an.
- **Gari Elias Egibar.** Orion, irailaren 12an.


HILDAKOAK

- **Patxi Lertxundi Argiñena.** Orion, irailaren 11n. 97 urte..
- **Jose Zubeldia Iribar.** Orion, irailaren 22an. 93 urte.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). **KARKARAK** eskubidea du gutuna laburtzeko. **KARKARAK** ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, **KARKARAK** esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak **KARKARARA** bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alaiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

Zer iritzi duzu klima larrialdiaren inguruan?




MARTIN SARASUA

Esango nuke klima aldaketa dela nire kezka nagusietako bat, eta ez soilik horrek izan ditzakeen ondorio zuzenengatik. Uste dut ez garela konturatzen, adibidez, Artikoko izotza urtzen bada, gutxieneko arazo bat izango dela kostako herri askotako etxebizitzak arriskuan egotea. Askoz gehiago beldurtzen nau milioika nekazarien etorkizunak, milaka espezieren biziraupenak edo ur edangarriaren eskasiak. Azken hori izango da etorkizun hurbileko drama nagusietako bat; dagoeneko merkatuan dago ura, pentsa! Nire ustez, ez gara honaino iritsi soilik berekoieria hutsarengatik edo kapitalismo basati baten ondorioz. Horrela da, bai, baina guztiok dugun jarrerak ere badu eragina, neugandik hasita: arazoari begiratzen diogu, eta ez dugu ezer egiten.



SARA ETXEBERRIA

Gaiak kezka handia eragiten dit. Orion, kasu, ur mailaren igoerarekin arazoak izango ditugula iruditzen zait, errioak gainezka egin dezakeelako. Neurri gabeko garapena eta sistema kapitalista dira honen guztiaren eragile nagusiak. Jendartean badago gero eta kontzientzia handiagoa, baina egoeraren larritasunari erreparatuta, ez dut uste nahikoa mugitzen garenik; kontzientzia bai, baina ez dugu gauza handirik egiten. Aurrera begira, ezkor samarra naiz. Uste dut ur falta ikaragarria egongo dela, eta muturreko beroaren ondorioz toki jakin batzuetan ezingo dela bizi. Horrela jarraituz gero, ez da nahikoa baliabide natural egongo lurreko biztanle guztiontzat. Arazo handia dugu gainean, eta zaila da baikorra izatea.



ARKAITZ ETXABE

Klima aldaketak berak baino gehiago, aldaketa horren ondorioek kezkatzen naute neu. Gertatzen ari dena, orokorrean, sistema kapitalistaren errua dela esango nuke. Halere, norbanakoak badu zer egin ingurumenari dagokionez. Gauza zehatzak egin ditzakegu gutako bakoitzak: esaterako, hondakin gutxiago sortu, hondakinak birziklatu, garraio publikoa sustatu, energia efizientzian inbertitu... Bestalde, politikariek eta erakundeek ere ingurumenari lotutako arazo hau konpontzeko neurriak hartu beharko lituzkete. Horrez gain, uste dut gure ondorengoei arazoaren larritasuna ondo adierazi behar geniekeela, eta hausnartu eta adostu beharko genukeela arazoaren larritasuna jaitsi dadin zer egin behar dugun. ■■■



Katu Horia
albaitaritzak klinika

ESTROPALARI, 10
20810 ORIO
+34. 943 11 66 99

Larrialdia:
668891129

Lizaso Dekorazioa



Eusko Gudari, 48 · ORIO · 943-83 07 84
itzilizaso@gmail.com



KORTABERRI
arotz lanak

Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com

665 70 33 47



MARIO

ILEAPAINDEGIA
Eusko Gudari, 8 beheak · ORIO
943-13 47 29

libe
dietetika
elikadura aholkularitza

943-53 64 94
697 23 86 56

Eusko gudariak, 35 · ORIO
(sarrera Arrantzale kaleatik)

libegarmendia@gmail.com
www.libegarmendia.com



MENDIZABAL
AROTZEGIA

Neurriko armairuak eta egurlanak

Altzerri bidea, Beti-Alai etxea · AIA-ORIO
943-83 11 75 · 645 70 84 91
mendi@arotzgi.net



niko
taberna

Karta
Pintxo tradizionalak
Okindegia



Palota Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943-53 61 27

MOLA MOLA
ORIO BEACH BAR · GOOD VIBES



Hondartza bidea, 2
943-58 00 37
molamolabar.com · molamolabar

OINARRI PODOLOGIA ZENTROA



Arrantzale kalea, 63 beheak
ORIO
943-57 53 61
oinarri@podologia-oinarri.com
www.podologia-oinarri.com

Oreka
fisioterapia

Eusko Gudari, 54 · 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa
Eskuzko terapia · Talka-uhinak
Masaje terapeutikoa · Osteopatia



INDO

Garraio frigorifikoa
Nazionala eta Nazioartekoa



kamarak



ibilbideak



generoa



garraioak

Ubegun industriagunea, 4
AIA-ORIO
943-89 4024 · FAX-a: 943-13 01 44

Ingurumena erdigunera

Azken hilabeteotan izandako muturreko fenomenoen harira (Kanadako bero bolada, Espainiako Mar Menorren izandako ur-espezieen sarraskia etab.) areagotu egin da gizakiak ingurumenari eragindako kalteen inguruko kezka. Etxean ere aurki ditzakegu arduratzeko arrazoiak, eta Herrio natur taldeak eman ditu elkarrekintza horren eta etorkizuneko premien gaineko hainbat argibide. Taldeko lau kideekin bildu da KARKARA, erreportajea osatzeko.

Testua: **Aritz Pardina.**
Argazkiak: **Arnaitz Rubio**
Apra.

Hemezortzi urte pasatu dira dagoeneko Herrio natur taldea ofizialki sortu zenetik, 2003an, urtebete lehenago lanean hasiak ziren arren. Garai hartan, 2001ean zehazki, Orioko Udalak Motondoko lur eremua erosi zuen arraun pista olinpiko bat eraikitzeko ideiarekin. Talde osoaren izenean Amaia Urkolak, Eneritz Odriozolak, Garbiñe Manterolak eta Arturo Elosegik azaldu dutenez, "proiektu hark eta antzerakoek ingurumenari ekar diezazkioketen kalteez kezkatuta" hasi ziren elkartzen.

Beren hitzetan, urte hauetan guztietan egin duten lanaren helburua inoiz ez da izan zenbait politikari aurre egite soil, funtsean "kontserbazionista" irizten baitiote euren elkarteari. Hau da, dibulgazioa eta laguntza izan dira betidanik haien xede nagusia: "Garai hartan, ingurumenaren zaintza ez zen udalean gai bezala jorratzen. Hutsune horri konponbidea jartzeaz gain, herrian ingurumenarekiko sentsibilitatea suspertzeko ekimenak sortu nahi genituen. Hala, horretarako ingurumen teknikaririk ez bazegoen ere, ezagutza elkarbanatzeko eta laguntzeko prest zegoen talde bat sortzea erabaki genuen", azaldu dute.

Diotenez, hasieran Herrio errezeloz hartu zuen zenbaitek herrian: batetik, ekologiak garrantzirik ez zuela uste zuelako askok, eta bestetik, orduan ingurumenaren gaineko eztabaida politizatuta eta, are "partidizatuta" zegoelako: "Askotan gogor lan egin behar zen gai honi buruz lasai hitz egiteko. Bazen gure posizioa erasotzat hartzen zuenik ere, eta hori ulertzekoa izan daiteke. Azken batean, planak egiten dituenari ez zaio inork kontra egitea gustatzen. Gainera, aurka azaltze hori alderdi politiko jakin batekin erlazionatzen zen sarritan.



Dena dela, guri berdin zitzaigun udalean zein alderdi zegoen. Guk gaiarekiko genuen lotura".

Hastapenetako egoera hura egungoarekin konparatuz gero, badira desberdintasunak. Ingurumenaren zaintzarekiko kontzientzia, oro har, handiagoa dela esan daiteke. Herrioko kideek dioten moduan, "kontserbazio mugimenduak gauza berbera esaten daramatza 40-50 urte. Hasieran erokeria zirudien, baina orain jendea guztiz barneratzen ari da". Jendartearen ikuspegia aldatu bada, hortaz, inguru naturalean eman diren aldaketei eta muturreko fenomeno klimatologikoei esker izan da: "Garai batean kalte horiek urruti ziren, baina gaur egun agerikoak dira. Ikusten da ezinbestekoa dela, nahiz eta ez gustatu, ezkerrekoak edo eskuinekoak izan, ingurumenaren zaintza arautzen duen legedia zorrotz betetzea".

Bidea hasi zutenetik nabaritu dute pentsamendu aldaketa bat. Dena dela, ez dira zeharo baikorrak; azaldu dutenez, ingurumenaren auria "diskurtsoetan sartu bada ere, ez die ekintzei eragin". Horren adibidetzat jarri dituzte Orion 0 kota (edo azpitik) egin diren garajeak, erriberan altxatutako eraikinak eta epe luzera pentsatzeko "ezgaitasuna" erakusten duten beste hainbat proiektu. Izan ere, epe laburreko erabakiek ingurumena ez ezik gizartea ere kaltetzen dutela azpimarratu dute, bai bizi kalitateari dagokionez, bai ekonomiari dagokionez.

Dikotomia faltsua

Kontzientziazio lanaren barruan, Herrikoentzat funtsezkoa da gizartearen eta naturaren arteko bereizketa ukatzea. Izan ere, ukaezina da pertsonen ongizatea giza alorrean gauzatzen dela uste bada ere, ingurumenaren egoera gure bizi kalitatearekin hertsiki lotua



Eneritz Odriozola.



Amaia Urkola.



dagoela: "Dikotomia faltsu bat sortzen da naturaren eta gizartearen artean. Adibidez, ibaia kutsatuta zegoenean –1950-1980eko hamarkaden artean–, jendeak uste zuen ordaindu beharreko prezioa zela ondo bizi ahal izateko, baina gaur egun badakigu ibaia garbiagoa badago, gure bizi kalitatea ere hobea dela". Taldearen ustez, gaur egun inork ez luke industriaren garapena edo lanpostuen sorrera ibaiaren garbitasunaren gainetik jarriko, hain zuzen ere,

inguru naturalaren egoera jendearen ongizatearekin lotzen ikasi duelako jendarteak.

Horrenbestez, natura zaintzeaz gain, hobetu litekeena mahaigaineratzea ezinbestekotzat dute elkartekoek. Hori, baina, zaila da, "Gipuzkoa okerragokoa zen ingurumen egoera batetik baitator, eta horrek ondo goazen sentsazioa eman baitezake". Ostera, egungo testuingurua ez da hain desiragarria, hirigintzari dagokionez gauza ugari hobe bailitezke. Baina ez hori bakarrik, sarritan ingurumenari erreparatzea gizartea hobetzeko bidea izan ohi baita.

Ildo horretatik, zer pentsatua ematen duen galdera sorta planteatu dute: "Zer egin da herrian energia berriztagarrien arloan? Zein da ur arazketa eta ur edangarriaren metatzearen inguruko egoera? Zenbat eraginkortasun akats daude? Zein da hondakinen kudeaketaren egoera? Nola egiten da? Eta zer hobetu daiteke? Zaratari dagokionez? Ibilgailuen zirkulazioari dagokionez? Ingurumena proiektu handien aurkako mugimendutzat hartua izan da, baina ez da hori. Ingurumena guztia da, eta hobetzeko gauza asko daude".

Aurreko guztiaz gain, itsasoaren ondoan egiten diren obra kopuruak nabarmendu dituzte, zeinak izugarrizko gastua duten. Tamalez, kostaldean egiten diren lanak epe laburrean erabilgarriak badira ere, klima aldaketaren eta itsasoaren igoeraren aurrean goiz zaharkitzeko arriskua dute. Horregatik, Herrikoek azpimarra jartzen dute gizartearen eta ingurumenaren arteko dikotomia ezabatzeko beharrean; izan ere, kontserbazio mugimendua aintzat hartzeak, sarritan inguruko biodibertsitatea eta eremu naturalak mantentzea eta zaintzea dakartza, eta onura ekonomikoak ere ekar ditzake, epe luzerako plangintza egitea ahalbidetzen baitu.

Herritarren indar eraldatzailea

Legeez, udalaz, gobernuetz eta enpresez asko hitz egiten da, baina norbanako modura egin al daiteke ingurumenaren aldeko ekarpenik? Herriko lantaldearen aburuz, bai. Izan ere, "herritar bakoitzak lan asko egin dezake eta, guztiok ados jarritz gero, indar eraldatzaile handia izan dezakegu. Herritar bezala, lan gehiena norberak bere etxean egin dezake. Industrian eta lantokian egin



Arturo Elosegi.



Garbiñe Manterola.

dezakezuna, hori beste kontu bat da".

Ondo birziklatzeaz gain, har daitezkeen jokabideen artean, bi puntu nabarmendu dituzte: batetik, funtsezkoa irizten diote politikariei plazaratzea jendartearen kezka.

"Ingurumenak kezkatzen gaituela azaleratzen badugu, udal eta gobernuen gastua eta esfortzua bide horretatik ere joango da". Bestetik, ingurua ezagutaraztea ere garrantzizkotzat dute: "Espezieak edo gune naturalak behar bezala bistaratzea inportantea da, aparkalekuak edo bestelako proiektuak sortu beharrean, gune horiek errespetatu daitezkeen".

Aurreko argudioak ikusita, eskarian egon daiteke gakoa. Egin beharrekoa ez baita norbere lan soila; aitzitik, "eragiten dizuten beste dimentsioetan eskatzeak ere asko egin dezake". Bestalde, eskariak erostekekin ere erlazio zuzena du, eta, hain zuzen ere, kontsumoa da azkenaldian ingurumen kontuetan bolo-bolo dabilen gaietako bat: hura izan liteke kalte larri eta globalak ekiditeko puntu garrantzitsuenetako bat.

Ingurumenaren ezaugarri bereizgarrienetakoa da arazo lokal eta globalen elkarrekintza, eta horregatik, funtsezkoa da eguneroko bizitzako inertiak aldatzea. Azken batean, pauso itxuraz xumeak kontzientzia orokor batek gidatzen baditu, gauzak eraldatzeko indarra eduki dezakete: "Aldaketa handia behar da epe laburrean. Birziklatzeaz hitz egiten dugu, baina ez dugu hain erraz esaten *ez kontsumitu*. Hainbeste aldaketa izango dira aurrerantzean, non orain

KAIKU


Kaiku

Urola Kostako baserritar familien esnea

Kaiku proiektua abeltzaintza-familiak osatzen dute eta duela 60 urte baino lehenagotik konpromiso sendoa du sektorearekin. Horri esker, abeltzain familiak beren jarduera garatzen jarrai dezakete, maiz ahaztua izan den baina gure gizartearentzat eta hurbileneko inguruarentzat funtsezkoa den sektorean, ekonomia zirkularra eta herrietako lanpostuen garapena sustatuz.

Kaikuko abeltzain-familia horietako bat Zestoako Joxe Ramón eta Garikoitzen familia da.

Ahalik eta baliabide gehien aprobetxatzen zentratu dira buruaskiak izateko eta behiak modu erabat naturalean elikatzeko: fabrika txiki bat jarri dute baserrian, non zerealak ehotzen eta zapaltzen dituzten, Zestoako larreetan lantzen duten bazka osatzeko. "Ongarri naturalarekin lantzen dugu lurra eta bioaniztasuna errespetatzen dugu produktu kimikorik erabili gabe. Gure lan egiteko modua jasangarria da ingurumenarekin eta horretaz harro gaude" dio Garikoitzek.

Joxe Ramón eta Garikoitzena bezalako Kaikuko familia-abeltzainen lanari esker, hurbileko produktua lortzen dugu, Urola Kostan bizi diren familiak ekoiztitakoa: kalitate oneneko eta zapore handiko esnea. QR kode hau eskaneatuz gero, zure inguruan zenbat ganadutegi dauden ikusi eta Kaiku Km0 ekoizpen arduratsuko brik-esne bakoitzaren atzean dauden familiak ezagutu ahalko dituzu.

EZAGUTU


nortzuk garen **KAUKUKO BASERRITAR FAMILIAK** eta zein **HURBIL** gauden zugandik
IRABAZI URTEBETEKO ESNEA DOAN.



TALDEA SORTU ZEN GARAIAIN, EKOLOGIARI EZ ZITZAION GARRANTZIARIK EMATEN GIZARTEAN

“ETORKIZUNEAN, EDOZEIN ERABAKI HARTZERAKO GARAIAIN PISU HANDIA IZANGO DU INGURUMENAK”

hartuko ditugun erabakiek hurrengo hamarkadetan izugarrizko eragina izango baitute. Hemendik ehun urtera erabaki horiek epaituak izango dira, ingurumenarekiko utziko dugun herentzia ezingo baita eraldatu”.

Erabaki pisutsuak

Ingurumenarekiko izugarrizko eragina izan dezakete erosketak egiteko herritarrek erabiltzen dituzten bideek. Produktuak nola saldu enpresen esku dagoela dirudi, eta legedia zorrotzago bat egon ezean, kontsumoaren aldaketa-indarra eskarian aurki daiteke, hots, kontsumitzaileengan. Herrioko kideek dioten moduan, "guztiok biltzeko plastiko edo materialik ez daukan produktuak erosiko bagenitu, enpresak azkar moldatuko lirateke eskari horretara. Guztiok eskari hori egingo bagenu, gaurtik biharrera ez, baina egoera aldatuko litzateke”.

Era berean, haragi eta arrain kontsumoa apalduz gero, planta intentsiboen ordez nekazaritza eta abeltzaintza jasangarriago bat sortuko litzateke. Ordea, egungo norabidea aurkakoa da, adibidez, Noviercasen (Gaztela eta Leon, Espainia) 23.500 esne-behi ustiatuko dituen plantaren proiektuak erakusten duen moduan. Natur taldekoek bilakaera honekiko kezka azaldu dute: "Frogatuta dago mendealdean kontsumitzen dugun haragi kopuruarekin natura hondamendi bat etorriko dela, dieta horrekin jarraituz gero”.

Hala eta guztiz ere, elkarteko kideek ez dute zalantzarik: luzaroan mantendu diren ohiturak aldatuko dira, halaberbarrez bada ere: "Ezbairik gabe, gure haragi kontsumoa jaitsi egingo da, edo, orokorrean, gure kontsumo modeloa erabat aldatuko da; hala izan beharko du. Gaur egun garatzen ari den animalia produkzioa erabat intentsiboa da bai Espainian, bai Euskal Herrian. Hori gutxi balitz, kontsumitzen dugun haragiaren ehuneko handi bat kanpotik dator. Bestalde, plastikozko bilkinetan etortzen dira jakiak, askotan hori ekiditeko aukerarik gabe. Produktuen jatorriaren inguruko informazioa ere lausoa izan ohi da eta, gainera, sortutako hondakinak ezin dira behar bezala banandu", azaldu dute.

Etorkizunaren norabidea eraldatzeak zaila badirudi ere, hezkuntzaren eta politikaren arteko orekari esker lortuko dela iritz diote. Nabarmendu duten moduan, etxeko eta eskolako heziketaz gain, legedia zorrotz bat ere ezinbestekoa da behar den muturreko aldaketa gertatzeko: "Ezin dugu gizartea hezi zain egon, erabaki drastikoagoak hartu behar dira, gauzak aldatuko badira. Gizartearen osasuna aurretik jarri behar da, eta horretarako daude legeak. Askotan gizarteak gustuko ez dituen neurriak abian jarri behar dira onura orokor baten bila". Diotenez, baina, bitartean funtsezkoa da norberak ahal duen neurrian inguruneari eta kontsumitzen duen moduari erreparatzea.

Orio 2050ean

Hemendik 30 urte ingurura bizimodua nolakoa izango den galdeginda, zalantza azaldu dute Herrioko kideek: "Guztiak du elkarrekintza handia. Ondorioak aurreikustea, gainera, ezinezkoa da batzuetan. Herri mailan hauteman daitekeenarekin alderatuta, mundu globalizatu batean askoz nabariagoak dira ingurumen

arazoak. Etorkizuna oso aurreikusgaitza da zentzu askotan". Ordea, aho batez baieztatu dute lanean daramatzaten urteetan ikusitako kontzientzia bilakaera muturrera joango dela: "Bi gauza izango dira zinez erabakigarriak: eskubide sozialak, batetik, eta ingurumena, bestetik".

Etorkizunean, beraz, "ingurumena ez da beste gaitatik bereiziko. Edozein erabaki hartzerako garaian pisu handia izango du. Ez da etxe berri bat eraikiko baldin eta inguruarekiko eragina zero izango dela ikusten ez bada, edo etor litezkeen arazoak nola konpondu aurreikusten ez bada". Edonola ere, atzera bueltarik ez dagoela ere ziurtatu dute: "Klima aldaketa gertatzen ari da eta gertatuko da. Gure esku dagoen bakarra zenbateraino aldatuko den aukeratzea da".

Etorkizuneko bizitza nolakoa den asmatzea zaila bada ere, gizartearen kontsumoa txikiagoa eta jasangarriagoa izango dela ere ez dute zalantzarik egiten: haragi eta arrain gutxiago, garestiagoak, eta ekoizpen sostengagarriago batetik eratorriak. Haien aurreikuspenen artean mugikortasuna ere aipatu dute: "2050ean ez dugu jabetzan autorik izango, ziurrenik alokatu egingo ditugu, eta *utilitario* deritzonak gailenduko dira".


Iragarpen hauek beteko diren edo ez egiaztatzeko, herritarrek ez dute 2050era arte itxarotea beste erremediorik. Bitartean, legedia zorrozten ez bada ere, norberak pauso txiki baina erabakigarriak egin ditzake ingurumenaren zaintzaren eta bizimodu osasuntsuago baten alde, ezbairik gabe, aldaketa xumeek etorkizuneko norabidea erakuts baitezakete. ■■■



NON DAGO KARKARA?

Karkara pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutatuta aurkitu behar da, eta erantzuna *karkara@karkara.eus* e-posta helbidera bidali urriaren 21a baino lehen. **Saria:** LAR ZALDIAKen bi lagunentzako zaldi paseoa emango. Karkarako Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

Iraileko Karkara aldizkarian Karkara pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 25. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta **Manuel Mari Zumeta** bazkidea izan da irabazlea.





Sintoma onak

COVID-19ak baldintzatutako bigarren denboraldia izan da aurtengoa. Diagnostikoa egin eta sintoma onak asko direla jabetu gara:

-Ekainean denboraldia aurkezteko historiara pasako den argazki erraldoia atera genuen errioan. 170 arraunlari uretan, adin guztietakoak, neskak eta mutilak. Hori gara Orio.

-#nioriorekin kanpaina aurkeztu dugu aurrean. Herriko pertsona erreferenteen aurpegiak ikusi ditugu gure establezimenduetan eta kalean: Imanol Alguacil, Oiana Blanco, Ixar Oliden, Joxe Antonio Gutierrez... Bazkide berriak egiten jarraitzen dugu.

-Uztailean *Apostolu horiak* dokumentala aurkeztu genuen Arraunetxan. Emakumeek

Orion arraunean egindako lehen palada haietatik Kontxako bandera eta liga irabazteraino egindago bidearen testigantza zuzena. Negar eta barre egin genuen. Bideak jarraitzen du. *BoluntOrioak*, boluntario lanari eskainitako beste dokumental bat ari gara prestatzen.

-Emaitzak zenbakitan jarrita, 28 garaipen eta 17 bandera irabazi ditu Oriok. Proiektu integrala da Oriorena. Behetik gorakoa. Arraunaren kirola neska-mutilekin eta modalitate guztietan lantzen ari

gara urtero: arraunketa olinpikoa, batelak, trainerillak eta trainerua.

-Traineru denboraldian Orio zaleak telebistako estropadei begirik kendu ezinda mantentzea gauza handia da. Mutilek banderarik ez, baina hirugarren amaitu dute ligan. Eta askotan erakutsi dute bandera bat irabazteko gai direla, zaleari emozio hori transmitituz azken unera arte. Beraientzat da herritarren eta zaleon bandera.

-Neskak bigarren sailkatu dira ligan baina txapeldunaren puntu kopuru berarekin. Zazpi estropada irabazi dituzte traineruan eta sei bandera astindu. Sei *aliron* egitea marka handia da gero. Historia egiten jarraitzen dute.

-Herri askotan jokatu ditugu estropadak. Lau haizetara

**ZERRENDATUTAKO
SINTOMA HAUEK
DETEKTATU ETA GERO,
OHARTU GARA GUREA
SUKAR HORIA DELA**

HAUXE BAI JENEROA!



zabaldu dugu ORIO izena eta marka: Banyoles, Legutio, Pasaia, Zumaia, San Juan, Moaña, Getaria, Hondarribia, ... eta Orio.

-Estropada hauetara guztietara iristeko, eta etxeoak antolatzeke, boluntario talde zoragarri bat dago martxan. Hurrengo denboraldiari ekiteko irrikaz dagoen laguntzaile sarea da gurea. Merezitako atsedena har dezatela orain. Beraiek gabe ezinezkoa litzateke aurrera egitea.

-Gure proiektuaren oinarri zareten babesleak oso gertu sumatzen zaituztegu. Udalarekin harreman zuzena dugu eta baita babesle pribatuekin ere; txikienetik handienara. Denak zarete guretzat beharrezkoak. Eskerrik asko.

-Arraunaren unibertsitatea da Orio, eta arraun eskola martxan da berriz. 18 urtez azpiko kategorietan 115 neska-mutiko ditugu uretan, entrenatzaile oso prestatuak eta proiektu oso sendo bat. Gazte horiek izango dira etorkizuneko arraunlariak, patrioiak, entrenatzaileak, laguntzaileak eta zaleak.

-Senior mailan 60 arraunlaritik gora izan ditugu eta izango ditugu hurrengo denboraldian ere. Hauek gobernatzeko, gure ustez, momentuko hiru entrenatzaile eta prestatzaile fisikorik onenak. Bejondaizuela!

Sintoma hauek detektatuta ohartu gara gurea sukar horia dela. Ilusioz eta indarrez ari da OAEko zuzendaritza hurrengo denboraldia prestatzen. Gu ere Oriorekin gaude eta ez gara bakarrik joango. ■■■

NIRE HONETAN



ARITZ MUTIOZABAL

Ohio

Orio eta Ohio. Bien artean, Atlantikoa eta filmeetan entzundako estatu bitxi horiek: Maryland, Pensilvania, Virginia... eta izkin eginda, Ohio.

Lagunentzako *Ojayo*, guretzako *Oriyo* den bezala. Eta esango duzue, *ze arrayo!* Ba lehen begi kolpean berdinak direla, R eta H kontuak salbu.

Aizue, ez da lelokeria! Jakes Goikoetxeak erreportaje bat landu zuen martxoan Jose Mari Ertzillaren ikerketen inguruan, zeinak Kristobal Kolon Euskal Herrian jaio zela eta Orion ibilia zela baieztatzen duen. Eta badakizue nola izena duen Ohioko hiririk populatuena? Columbus. Nabigatzaile *euskaldunaren* omenez antza.

Columbusen hainbat kirol profesional egiten dira, baina arrauna ez (hori da bekatua!). Major League Soccer-en jokatzen duen futbol talde bat dute: Columbus Crew. Itzulpen literala *Kolonen kuadrilla* da; oriotarrez, Peña Petril. Taldeak elastiko horia defendatzen du gogotik zelaian, mirotzek itsasoan bezala.

Beraz, bada garaia Orio-Ohio senidetzen hasteko. Portzierto, ez dizuet esan, baina Erie lakua dute han, eta ez legoke gaizki 2022ko Oriako Jaitsiera bertan jokatzea. Basquetour-en kontura, ezta? ■■■

FAST FOOD-AREN INBASIO IRAUNKORRA AURKITZEN DUZUNEKOA



Ez sentitu bakarrik, ZainBIZI ondoan izango duzu



ZainBIZI elkarte sortu berri dugu Orion. Amaia Gozategi Urbietaren gidaritzapean, bederatzi kidek osaturiko lantaldea gara, eta gure helburua da herritarrei ongizaterako baliabideak eskaintzea. Adin guztietako herritarrek babesa sentitzeko espazioak sortu nahi ditugu; jendeak senti dezala ez dagoela bakarrik, herrietan badaudelako elkarteak eta pertsona taldeak elkar laguntzeko.

Gure leloetako bat hauxe litzateke: *Nik eusten zaitut, nik ezin dut zure bidea egin, zurea delako, baina ez zaitez bakarrik sentitu: ibilbide honetan lagun izango zaitut.*

Ongizatea lantzeko hitzaldiak, ikastaroak eta bestelako saioak antolatuko ditugu, eta autonomia pertsonala, zahartzaro aktiboa, bakardadeari aurre egiteko bideak, berdintasuna, gizarte ongizatea, osasunaren eta kulturaren aldeko jarrerak eta beste hainbat gai landuko ditugu. Bizitzaren amaierako prozesuak eta horren inguruan azaltzen diren gaiak sakonki landu nahi ditugu. Askotariko baliabideak eta tresnak jarri nahi ditugu denon eskura, gure buruak zaindu eta berronkatzeko. Bereziki arreta jarri nahi dugu zaintzaileengan: nork zaintzen du bestea zaintzeko rola duen hori?

Gainera, askotan hitzez zaila egiten zaigu gure barruko mugimenduak lantzea, eta horretarako hainbat tresna eskainiko ditugu: meditazioa, coaching-a, berronkatze energetikoak, laguntza terapeutikoa, zineforuma, talde topaketak, etab. Artearekin lotutako baliabideei ere leku berezia egingo diegu: antzerkigintza, dantzaterapia, musikoterapia, arteterapia, clown-a, etab.

Zauden tokian zaudela, animatu nahi zaitugu gure elkarte ezagutu eta eskaintzen ditugun proposamenak ezagutzera, elkarrekin bidea egiten dugunean, guztia baita xamurragoa.



Datozen asteetako hitzaldi, tailer, saio eta ekintzak

Urriaren 23an hasita, hainbat hitzaldi, tailer, jardunaldi eta ekintza eskainiko ditugu. Urriaren 23an bertan Xavier Uriarte mediku naturistaren eskutik bi tailer emango ditugu: *Nola kudeatu elikadura ekologikoa; elikadura ekologikoa gaixotasun ohikoenetan; eta erremedio popularrak* (09:30-13:30) eta *Heriotzean bidelagun* (16:30-20:30). **Urriaren 30ean**, berriz,

EIVIDA, Intuizio, Energia eta Bizitza eskolaren ikastaro berri bat jarriko dugu martxan (15. edizioa du Orion, eta eskolaren 10. urteurrenarekin bat egiten du, gainera).

Azaroaren 1etik 7ra, bestalde, *Dando vida a la muerte* jaialdiaren barruan, hainbat ekitaldi egingo da Orion: batetik, azaroaren 2an, 19:00etan Kultur Etxean *Mendian hil, hirian hil* zineforuma egongo da, eta Iñaki Peña zuzendariak hartuko

du parte bertan. Bestetik, iaz bezala, horma berezia jarriko dugu aurten ere kalean *Hil aurretik nahi dut...* esaldiarekin, nork bere hausnarketa idazteko aukera izan dezan horma horretan. Azkenik, **azaroaren 13an eta 14an**, *Vivir un buen morir* eta *El arte de acompañar* izeneko formazioa jarriko dugu martxan bosgarren aldiz Orion.

Ekitaldi hauei guztiei buruzko informazio zehatza zainbizieltarte.com webgunean aurkituko duzu. ■■■

Gai hauek lantzen ditugu:

- Autonomia pertsonala arlo fisiko, emozional, espiritual, sozial eta familiarrean
- Gizarte ongizatea
- Kulturaren sustapena
- Osasunaren sustapena
- Zahartzaro aktiboa, bakardadearen prebentzioa eta bizitzaren amaierako prozesuekin lotutako gaiak
- Genero berdintasuna eta berdintasun sozialaren sustapena
- Gaztaroa eta haurtzaroa
- Balioen hezkuntza eta pentsamendu kritikoaren sustapena
- Giza talentuarekin konektatzeko coaching-a.



zainBIZI elkartea
zaintza Bizitzan

www.zainbizieltarte.com
zainbizieltarte@gmail.com
613 02 36 18

ORIOTAR

bat gehiago



**BATU KARKARAREN PROIEKTURA,
BATZEN GAITUENA GARA!**

Egin zure ekarpena: bazkide@ukt.eus - 943-81 38 41



ORIOKO HERRI IKASTOLA

"Emozio asko eragin dizkigu gure lanak"

MARI KARMEN ARRILLAGA ETA MARISA ARANBURU IRAKASLE OHIAK



Zer eman dizu ikastolak?

Jende asko ezagutzeko aukera: gurasoak, irakasleak, ikasleak... Azkenaldian ikastola eta herria asko handitu dira eta harreman desberdinak sortzeko aukera eman dit. Ikasleek ere asko eman ditdate, eta beraiek kalean kaso egite hutsak ikaragarritzko poza ematen dit.

Berrikuntza pedagogikoen aurrean antzeman al duzu aldaketarik ikasleengan?

Azken urteetan Konfiantzaren Pedagogian oinarritu gara eta honi esker, haurrek beraien gaitasunak ezagutu eta nola garatzen dituzten ikusi ahal izan dugu, bakoitzaren erritmoak errespetatuz. Gu, bidelagun gara prozesu horretan, ziurtasuna emanaz, garapenean aurrera egin dezaten.

Zer sentitu zenuen azken egunean ikastolak egindako omenaldian?

Aurrez gurasoek ere egin zidaten, eta ikasle eta lankideen omenaldiarekin barruko emozio guztiak atera zitzaizkidan. Polita izan zen eta guztiei oso eskertuta nago. Oraindik ere emozionatu egiten naiz. ■



Inoiz pentsatu al zenuen irakasle izango zinela?

Ume garaian ez behintzat. Hamasei bat urterekin frantses ikasketak Baionan egiten ari nintzela, literatur irakasle batek nigan arreta jarri zuen eta berarengandik datorkit irakasle bokazioa.

Nondik datorkizu artista sen hori?

Nire burua artista moduan baino, eskulangile bezala ikusten dut. Edozein material xumerekin beste zerbait sortzen duena eta lanbideak trebatu duena. Nire haurtzaroan familiako zapata dendan kartoiak, zapata kutxak, zetazko paperak, iltzeak... soberan genituen eta guztia berrerabiltzen genuen. Ama saregilea eta izeba jostuna izateak ere aberastuko zuen nire sorkuntza-haztegia.

Asko gogoratzen al zara ikasleeta?

Nere ibilbidearen zati nagusia beraiei zor diet: elkarrekin espermentatu, praktikatu, ikasi, eta bizitako emozioek eraldatu naute. Guztiak gogoratzea handinahiz jotzea da, baina bai, gogoan ditut. ■



MAREN TAPIA

KONTXAKO AJEAK

Jakina da, Kontxako estropada eguna oso berezia dela Orio herriarentzat. Estropada hau 1879. urtetik jotzen da Donostiako uretan, eta arraunlari guztiontzat da berezia; arraunean hasi eta lehen egunetik itxaroten dugun eguna da Kontxa. Azken urte honetan, ez gara oriotarrak izan estropada horien garaileak, ez emakumezkoetan ez eta gizonezkoetan. Ilusio handiarekin joan gara gure neska-mutilak animatzera eta harrotasunez beterik itzuli gara herrira, pena handiarekin baina hurrengo urtea esperantzaz begiraturaz.

Guzti honen harira, eskaera bat luzatzera nator: Kontxako estropadaren hurrengo eguna jai eguna izatea. Estropadak amaitu ondoren, normalean lagunekin, kuadrilakoekin, familiakoekin,...baskaria egiten da eta denok dakigun bezala, baskari hauek luzatu egiten dira eta hurrengo egunean lana edo Ikastolara joan behar bada ezin izaten dugu parranda txikirik ere bota. Hurrengo eguna oso gogorra izaten da denontzat, gehienbat arraunlariarentzat. Hauek eta zalego guztiak hurrengo eguna lasaitasunez pasatzeak lanean eta Ikastolan indar gehiagorekin hastea suposatuko luke. Hau guztia esanda, argi geratzen da, nik neronek, behar beharrezkoa ikusten dudala Kontxako estropadaren hurrengo eguna Orion jai eguna izatea. ■



Artista hutsaren hitz beteak



IÑAKI ITURAIN iturain@gmail.com

XXI. mendeko 21. urteko urriaren 21ean 113 urte beteko dira Jorge Oteiza jaio zenetik, Orion. 2003an 94 urterekin hil zenetik 18 urte pasatu direnean, haren gaineko aipamenak ez dira isildu. Bera ere ez zen isilik egotekoa. Esaldi hau harena da: *“Isiltzean hil egiten gara, hizkuntza guztietan”*. Hitza jaiotzetik erantsia baitzuen abizenean bertan: **Oteiza**.

1963an *“Quosque Tandem”* izeneko liburua plazaratu zuen, euskal arimaren interpretazio estetikoa egiteko saiakera. *“Noiz arte!”* esan nahi dute latinezko bi hitzok. Liburuaren bidez, Oteizak herriari esnatzeko deia egin zion, oihu eta galdera lazgarria, frankismoaren gau ilunean: *Noiz arte segitu behar dugu honela?* Aktibista izan zen, gizarte-eragile. Jorgek beste begiratu bat eman zigun,

gauzak bestela ikusteko modu bat; jenio hutsa baitzen Oteiza. Haren biografia euskaraz idatzi duen Nere Lujanbiok izenburu hori eman zion liburuari: *Jenio hutsa*. Bi hitzen bina esanahiak azpimarratuta: Jenioa zuen eta jenioa zen; eta artista hutsa, alegia artista bete-betea. Horregatik egin zuen hutsari buruzko kontzeptualizazio guztia, paradoxikoki hutsak eta beteak bat egiten dutelako euskaraz; eta Oteizak kontraesan hori bizi izan zuelako euskararekin.


Orain hiru urte (2018-10-20), Karkarak antolatuta Altxuzan izan ginen, Oriotik joanda, autobus-kada bat jende, Oteiza lurperatuta dagoen Nafarroako herrixkako Oteizaren museoan. Hilobian, Jorge emazte Itzietekin batzen duen gurutzearen aurrean, kantatu egin genion herikideari. Lau egun lehenago, Bernardo Atxagak hitzaldia eman zuen Arraunetxan: *“Oteizak tokia bilatu zion mun-*

duko mapan Euskal Herriari, euskarari eta euskal kulturari: bertsolaritza, frontoia, txalaparta... erakutsiz. 1964an sortutako “Ez dok amairu” kultur taldearen izena berak proposatu zien”.

Erreportajea, Altxuzako txangoan esandakoak eta batetik eta bestetik hartutakoak ekarriko ditugu lerrootara, gizon haren izaera berezian hitzak zuen garrantzia nabarmentzeko, eta haren jenioa azaltzeko.

Zirtoak eta zirtolariak

Gerra aurretik gertatu zen, Zelatungo erromeria batean: trikitixaren doinuaren gazteak dantzan ari ziren, gertu argazkilari kanpotar bat erretratuak egiten, hiru hankako erretratu-makina handiarekin, burua haren oihal beltzaren barruan zuela; halako batean, gazte batek, dantzan, makina jo eta lurrera bota zuen; gaztea hasi zaio



Jorge Oteiza, Arantzazun. Han du bere lanik ezagunena: Ama Birjina eta apostoluak. UTZITAKOIA.

argazkilariari belauniko jarrita “*perdón, perdón*”, eta gizonak “*que perdón, ni que leches!*” eta gazteak orduan, ukabila ondo itxi eta gizonari aurpegi aurrean jarrita, mehatxagarri: “*si no aceptas perdón, jakingo dek hemen zer don!*”. Holaxe kontatu zigun behin, ezpainetan barre txikia zuela, Jose Mari Lertxundi bertsolari aiarrak.

Grazia handiko ateraldiak dira zirtoak; bat-bateko erantzun labur, umoretsu eta irudimentsuak. Zelatungoa zirto baten adibide ona da. Zirtoek lagundu dezakete kultura, hizkuntza eta trebetasun pertsonal eta sozialak lantzen. Jorge Oteiza azkarra zen oso, horrelako erantzunak ematen. Zoritxarrez, ez zuen euskaraz

egiten eta ez zaizkigu euskaraz etorri haren ahozko ateraldiak.


Oteizaren zirtoak

Joserra Gartzia Oteizaz emandako hitzaldi batean pasadizo hau azaldu zuen: 1976ko udan Hondarribian arte-erakusketa bat jarri zuten; oriotarrak eskultura bat utzi zien harako, kutxa metafisiko bat. Kutxa erakustokiaren atarian jarri zuten, enbor baten gainean. Irailaren 8an guardia zibilek Josu Zabala gazte

OTEIZAK ESNATZEKO DEIA EGIN ZION HERRIARI, *QUOUSQUE* TANDEM! LIBURUAREN BIDEZ

irundarra tiroz hil zuten Hondarribian, manifa batean. Hilketaren kontrako protestaldian eskultura lurrera erori eta zartatu egin zen. Oteizarengana joan ziren gertatutakoa azaltzera, urduri eta larri. Kutxa erakutsi, Jorge begira jarri eta: “*Perfekto! Hauxe zen eskulturak behar zuen ukitua, bizi-ukitua. Oraintxe da eskultura hau bikaina!*”.

Jende askok ekartzen ditu gogora Oteizak esandakoak. Seguru asko, hark esan gabekoak ere jarriko dituzte batzuek haren ahotik. Iaz, Joan Mari Torrealdairen heriotzan, Atxagak oroitarazi zigun Jorgek Joan Mariri Arantzazun zer esan zion 1964an: “*Nola liteke zu bezalako gizon eder bat fraide izatea*”.



Iñaki Arrillagak Oteizaren kontzeptuekin egindako collage bat: 14 apostoluak arraunlari bihurtuta, trainerua zain dutela.

Andoni Egañak hauxe idatzi zuen Berrian (2019-01-11): *“Kafeari esnea eranstea nahi al zuen galdetuta, purrustada batez erantzun zidan. Ezetz, 150 urtean ez zuela esnerik probatu: Gure amonak ez zuen edaten, amak ere ez eta nik ere ez”*. Orioko plazan, berriz, hau azaldu zigun Egañak (2018-10-21): *“Oteizak hutsune handiena hitzarena zuen, hizkuntzarena, euskaraz ez jakitea; harekek sortzen zion barruan minik sakonena, eta huraxe atera nahi zuen barrutik”*.

Apaizgai batzuek behin galdetu zioten ea Arantzazuko apostoluen eta ama-birjinaren tarte *“sin nada”* utzi behar ote zuen, eta Jorgek: *“Cómo que sin nada, lo he dejado con nada!”*.

Gotzainak galdetu zionean ea zergatik egin zituen 14 apostolu eta ez 12, Jorgek: *“Gehiago kabitzen ez zirelako!”*. Orioko traineruko arraunlariak direla ere esan zuen behin baino gehiagotan; trainerua azken batean bere jaioterriko irudi eta ikur estetiko esanguratsuena da. Haietako ezkerrekoa Inazio Sarasua omen da, txalupako patroia. Behin hala bota zion Inazioren seme Jose Mariri: *“Ez*

JORGE OTEIZAK JENIOA ZUEN, ETA JENIOA ZEN; ARTISTA HUTSA ERE BAI, ARTISTA BETE-BETE

al dakik zein den hori? Hire aitaren kaskezurra ere ez al duk ezagutzen?”. Harena da, baita ere, *“Arraunlariak atzera begiratzuz egiten dute aurrera”*.

Jorgeren apostoluak, Elizak gaitzetsita, errepidearen bazterrean botata zeudela, baserritar batek zirikatu zion *“harri horiek nire baserriko harriak ematen dute”*, eta Oteizak: *“Bai, baina hemendik aurrera, zure harriek apostoluen antza izango dute”*. Iruñerako errepidean dauden bi haitz erraldoien erdal izena, Dos hermanas, euskaratik gaizki egindako interpretazioa da, ez dira Bi ahizpak, baizik Bi haitz-pe. Jorgek zioen han euskaldunok ez dugula izendatzen ikusten dena, baizik

haien arteko hutsunea, falta dena.

Jenio bizikoa zela zinean erakutsi zuen behin: pelikula ematen hasi aurretik, publizitatea ematen hasi ziren pantailan, bat bestearen atzetik, harik eta Jorgek, nazkatuta, marru egin zuen arte: *“Nahikoa da, nik ez dut sarrera ordaindu publizitatea ikusteko!”*. Hau ere harena da *“Euskaldunak kexatu bai, baina dena irensten dugu”*.

Orioko errioko urak goraka zihozenean, errioa arnasa hartzen ari zela esaten zuen; beherakoan, airea botatzen. Getariko San Anton mendia jende guztiak Getariko arratoia izendatzen du; Jorgek han balea ikusten zuen, alderantziz begiratuta, isatsa buru bihurtuta. Historiaren memoria neurtzeko, amona-unitatea proposatzen zuen; *“gure arbasoak kobazuloetan bizi ziren garaitik 167 amona igaro dira”*.

Jorgeren jaioterrikoak

Behin Orion, lehorte handi batean, errogatibak egitera elkartu ziren herritarrak elizan, Jainkoari euria eskatzera. Egun hartan ere ateri zen, baina Jorge oinetan katiuskak, soinean txamarra eta eskuan guardasola zuela agertu zen. Gainerako herritarrak, berriz, euratitak babesteko ezer gabe, eta Jorgek: *“Zuek, fedegabeak, zertara zatozte, ez baduzue eskatutakoa sinesten?”*. Holaxe



Oteizaren txokoa hutsik, Orioko elizako zimitorioan. Artistaren jaiotzaren mendeurrenean zabaldu zen, 2008ko urrian.

kontatu zigun Antonio Kanposek.

Beste behin, errioren beste aldeko bere tailerretik, 1968 aldean, Orioko teilatuetan agertzen ziren aurreneko telebista-antenei begira: *“Hortik sartuko digute kaka etxe guztietan sukalderraino; horiek dira gure zibilizazio berriaren gurutzeak”*. Benitori esan zion. 1974an Orion eraikitako udaletxea Oteizarentzat Euskal Herriko itsusiena zen. Orduan esan zuen udaletxea lurrarekin berdindu arte ez zela itzuliko herrira. 1925ean, Udalak plazan markesina eraikita Oriok erreboteko plaza galdu zuenean: *“Ez dakit markesina hori altxatzeko, herrian toki hoberik ba ote den, baina okerragorik seguru ezetz”*.

Oteizaren errekorra

Kritikak ere era guztietakoak jaso zituen. Bada dioenik Jorge eredu kaskarra zela, aitzakia merkea, euskararen alde agertu bai baina sekula ikasi nahi izan ez dutenentzat. Amatiñok gordin asko idatzi zuen Oteizak errekorra zeukala: bera zela euskaraz ez zekien Orion jaiotako bakarra.



Oteizaren Pietateari Martin Peronak egindako errepika non kokatu erabakitzeko, Zakillaneko aldapapean agintariak batuta, Jorgek sekulako errieta egin zion alkateari hango zaborrontziagatik.

Anjel Lertxundiren hitzak dira hauek: *“Oteizaren paradoxa: Orio bezalako euskararen plaza batean jaio, bizi osoan hutsa bere lan artistikoaren ardatza izan eta ez zuen ikusi hutsaren estetika eta plazer hutsa bete-betea euskaraz zein hurbiltzat dauzkan”*. Apologista sutsuak ere izan zituen. Joserra Gartzia: *“Bai,*

euskararen inguruan sarri jardun zuen, euskaraz jakin gabe; baina Oteizak onartzen zuen hori: –Ez naiz nire etxean jaio!–. Nik nahiago nuke, euskaraz ez jakitekotan, ez jakiteko modua denek Oteizarena balute. Nire euskaltasunari Oteizak eman zion hauspoa”. Gogora ekarri zituen Jorgeren hitzok: “Sakonki maite dut nire herria, eta sakonki amorratzen nau”. “Unibertsalak izateko bidea, geurean sakontzea da”.

Mikel Etxebarriak hauxe zioen artikulu batean: “Oteizak oso nortasun konplexua izan zuen: errebeldea, kritikoa, grinatsua, sutsua, ausarta, inkonformista, katramilatsua, ipurterrea, aldakorra... Ez zen inorekin ezkontzen, salbu eta Itziar emaztearekin. Emazteari errieta egin zion, berari itxaron gabe joan zelako, eta beldur ziolako eternitatean bakarrik ibili beharriari. Espirituen esnatzailea izan zen, jakin zuen gizartea astintzen, lozorrotik ateratzen. Oteizaren ekarpena, artistikoaz gain, haren jarrera kritikoa da, herriari erne eta esna egoteko egiten dion dei profetikoa. Ez dakit betikotasunean ote dabilen, baina haren obrak eta haren gaineko aipamenek luze iraungo dute”.

2008an, Donostiako Kursaalaren Oteizaren erakusketa jarri zuten. Tartean, Jorgeren esaldi batzuk: “Beharrezkoa daukanak dena du. Baina dena ez da

beharrezkoa”. “Artistak ez badu bere herria maite eta, beraz, ez badu zerbitzatzen, herri-zurtza da”.

Pako Aristik Bertsolari aldizkarian: “Oteiza gure herriagatik egin zezakeen guztia egiten utzi ez zioten pertsona harrigarri bat izan da”. Egia da Oteizak euskal erakundeetatik uko asko jaso zuela. Irailaren 14an Euskadi Irratian Jaime Otamendik, Joseba Arregi zendu berriaz ari zela, esan zuen Oteizak behin topo egin zuela jatetxe batean orduan Jaurilaritzako Kultur sailburu zen Arregirekin. Ikusi orduko, sekulakoak eta bi esan omen zizkion.

Oriotarren oroitarria

1934an dirulaguntza eskatu zion Orioko Udalari, sei hilabetez lan artistiko batean jarduteko. Udalak ez zion lagundu, esanez ez zeukala. 2008-10-21ean,

jaiotzaren mendeurrenean, Orioko elizan herriak oroimen-ekitaldia eskaini zion jenio hutsari; zimitorioan Oteizaren oroitarria zabaldu zen, haren oroigarri. Aurretik, elizako ekitaldian, bertsolariek honela errimatu zuten: Oteitza, bizitza, hitza; kultura, eskultura, esku hura; atea, artea, gizartea...

2016ko udan Donostiako estropadaren antolatzaileek erabaki zuten oriotarren 1939ko garaipena palmaresetik kentzea. Orioko herriak inoiz ez bezalako batasuna erakutsi zuen, alkateak eta belaunaldi guztietako arraunlariak egindako agerraldian, erabakiaren kontra egiteko. Agerraldirako, Donostiako Paseo Berriko Oteizaren eskultura aukeratu zuten oriotarrek, eta `Eraikuntza hutsa´ren aurrean, Jorgerekin batera, atzera begiratu zuten aurrera egiteko. ■■■



Altuzako Oteizaren museora oriotarrek 2018ko urrian egindako bisita.

Atletismoaren onurak



KAMEL ZIANI ETA AITOR RUBIO

KAMEL ZIANI ATLETISMO TALDEA

Sei urte pasatu dira dagoeneko gure taldea martxan jarri genuenetik. Herrian atletismoaren inguruko hutsune handia zegoela ikusi genuen, eta hortik abiatuz, lanari ekin genion. Urte hauetan guztietan, taldeko kideen kopuruak gora egin du etengabe, eta haur eta heldu askorekin lan egiteko aukera izan dugu. Gaur gaurkoz, seitik hamabi urtera bitarteko 50 haur ditugu gure artean, 13tik 16ra bitarteko 22, eta senioarrak ere asko. Denera, ia ehun lagun izango gara.

Adin desberdinetako lagunekin orduak eta orduak pasatzen ditugu entrenamendu saioetan, eta bertatik bertara ikusi dugunaren arabera, ondorio argi bat atera dugu: korrika egiteak onura asko eragiten ditu guztiengan.

Txikienei dagokionez, haiekin jolasteari garrantzia handia ematen diogu, umeek ondo pasatzea izaten baita garrantzitsuen. Gozamen hori bilatzea da haiek atletismora kateatzeko gakoa. Ariketa eta jolas desberdinekin entrenatzen ditugu korrikalari txikiak, eta ohartzerako, ia konturatu gabe, kilometroak egiten dituzte.

Aldi berean, umeek ondo zapaltzen ikasten dute, arnasa kontrolatzen, eta korrika egitean dituzten ohitura txarrak

zuzentzen dizkiegu. Horri guztiari esker, gorputzaren koordinazioa hobetzen joaten dira, eta hori kirolerako bezain ona da eguneroko bizitzarako.

Adin txikiko haurrekin lan egitearen onena da, hain zuzen, ikasteko gaitasun ikaragarria dutela. Berehala barneratzen dituzte kontzeptu berriak, eta gaitasun handia dute ohitura txarrak aldatzeko. Hala, bizi osorako baliagarri izango zaizkie gurekin ikasitakoak. Besteak beste, korrika ondo egiten ikastea oinarri sendoa da futbolerako, pilotarako, arraunerako edo beste edozein kiroleterako. Horrez gain, haurren artean sedentarismoa gero eta arazo handiagoa dela kontuan izanik, kirola egitea beti da ona. Haurrek mugitu egin behar dute, eta tartean gozamina badago, errazago eta gehiago ibiliko dira kirol horretan. Gure kasuan, ikusten dugu primeran pasatzen dutela, eta pozik ibiltzen direla entrenamenduak egiten.

Bestalde, atletismoak onura psikologikoak ere eragiten ditu umeengan. Balore onak barneratzen dituzte, eta

**ATLETISMOAK ONURA
PSIKOLOGIKOAK ERE
ERAGITEN DITU HAUR,
GAZTETXO ETA
HELDUENGAN**

gogortu egiten dira; sufritzen ikasten dute. Beharbada, onura hori ez da ikusten txikiengana, baina koskortu ahala, bai. Orain hamalau urte dituzten batzuk zortzirekin hasi ziren gurekin, eta lehiaketa nahiz entrenamenduetan indar psikologiko handia erakusten dute. Taldeko gazte batzuk emaitza oso onak ari dira lortzen txapelketetan, eta ziurrenik, arlo psikologikoan egindako lana da gakoetako bat.

Haurren inguruan hitz egiten aritu gara, baina helduei buruz ere aipatu nahi dugu zerbait. Gero eta jende gehiagok du korrika egiteko zaletasuna, eta hori hasiera batean ona den arren, badu arrisku bat: azkarregi hasi eta min hartzea. Batzuk denak emanda hasten dira, inoiz kirolrik egin gabekoak ere bai tartean, eta helburu handiak jartzen dituzte. Gure gomendioa argia eta sinplea da: poliki-poliki hastea, erotu gabe. Kontrakoa eman dezakeen arren, gorputzak oso indartsu egon behar du korrika ondo egin ahal izateko. Ariketa fisiko oso exigentea da, eta giharrak ondo landuta izan ezean, lesioak sor daitezke. Horregatik, gure entrenamenduetan indar ariketak ere uztartzen ditugu, adin guztietako korrikalariekin. Beldurrik gabe, taldera hurreratu eta atletismoa probatzeko gonbita egin nahi diegu adin guztietako herritarrei. ■■■



Ekintzaileak, herri txikietan

Aia eta Orio hazi egin dira azken hamarkadetan. Bi herriek izan duten garapen horren ondorioz, besteak beste, tradizioaren eta berrikuntzaren arteko muga lausotu da, eta badira eraldaketa hori negozio edo proiektu berriei ekiteko baliatu duten gazteak. Bi herrietako hiru ekintzaile elkarrizketatu ditu KARKARAK, erreportajea osatzeko.

Testua: **Aritz Pardina.**
Argazkiak: **Iñigo Gaiton.**

Norbere kabuz proiektu bat abian jartzea beti da erronka bat. Herri txikietan, gainera, zalantzak eta oztopoak areagotu daitezke, komertzioaren aniztasuna, besteak beste, biztanleriaren eta haren aniztasunaren baitakoa izan ohi baita. Hala eta guztiz ere, Aian eta Orion orain arte oso hedatuak ez zeuden jarduerak zabaltzen ari dira

eta, hirigune handiagoetan aurki daitezkeen negozioak aurki daitezke orain.

Orioko Merkataritza eta Turismoa udal-departamentuak emandako datuek bilakaera hori argi azaltzen dute, 2012. urtean inflexio puntua baitago. Ordura arte, besteak beste, aseguru etxeak, elikadura dendak, tabernak eta estetika zentroak zabaldu ziren herrian. Erreportaje honetara ekarritako negozioetatik gertuago, aurrekari moduan, 2009an zabaldutako belar-denda aipa daiteke. Dena den, denda hori lehen terapia edo botika "alternatiboen" establezimendu modura uler bazitekeen ere, gaur egun erabat normalduta dagoen komertzio bat dela esan daiteke.

Hala, 2012a ezkerro proiektu berritzaile askok zabaldu dituzte ateak, yoga eskola eta gimnasioak, gorputz mugimendu eta espresiorako guneak eta fisioterapia eta masaje zentroak, kasu. Negozio bat zabaltzeak beti arriskua ekartzen badu ere, halako denda eta guneen irekierak zalantza erantsiak sor ditzake, izango duten harrera kalkulatzeko zaila baita.

Errealitate hori hobeto ezagutzeko, KARKARAK hiru ekintzaile elkarrizketatu ditu: Itxaso Gonzalez, *Merak*: *kalitatez bizi* (Aia) belar-denda eta terapia-tailerra zabaldu berri duena; Elene Tamayo (Orio) artista multisiziplinarra; eta Ane Otamendi *The Pass* (Orio) kafetegi eta arropa dendaren jabea.

Mundu osoa kolpatu duen koronabirusaren izurriteak ere bete-bete harrapatu ditu elkarrizketatuak, baina, ekonomikoki garai zailak izanda ere, hiruek hartu dute haien proiektuekin aurrera egiteko erabakia. Gaur egun, dena dela, egoera ez da erabat desiragarria. Hala azaldu du Gonzalezek: «Ez dut erraztasunik eduki. Bere garaian, Aian dirulaguntzarik ez nuela erantzun zidaten».

Tamayok, bestalde, artearen alorrean egiturazko «zailtasun ugari» dagoela ere nabarmendu du, ekonomiaren ikuspuntutik baino, materialari, azpiegiturari eta beste kideekiko elkarrekintzari dagokionez: «Gipuzkoa mailan oso zaila da artearen munduan jardutea eta aurrera egitea. Ez dago Bizkaian edo beste lurraldeetan aurki daitezkeen tailerrak, ezta artisten artean ematen den laguntza ere».

Zailtasunak zailtasun, halako negozioen alde onak ere nabarmendu dituzte ordea. Otamendik dioen moduan, herri txiki batean negozioa irekitzeak beldur pixka bat eman badezake ere, «halako establezimendu berriek ikusmin handia sortzen dute hasieran, eta jendea asko hurreratzen da».

Zentzu horretan, herrien hazkundera eta jende gaztearen etorrera medio, baikortasunez hartu dute hiruek etorkizuna: osasunaren, kulturaren eta salerosketen gainean duten ikuspuntuak, Aia eta Oriok tradizioz dutenarekin batuz gero, herrientzat aberasgarria izan daitekeela iritzi diote. ■■■



Itsaso Gonzalez Merak dendan.



Elene Tamayo, etxeko estudioan.

2012 URTETIK AURRERA NEGOTIO MOTA BERRIAK ZABALTZEN HASI ZIREN AIAN ETA ORION

GAUR EGUNGO EGOERA EZ DA ONENA, BAINA HIRU EKINTZAILEEK DUTE AURRERA EGITEKO BORONDATEA

"Bizipen propioek eraman naute denda irekitzera"

ITXASO GONZALEZ MERAK DENDAREN ARDURADUN



Zer eskainiko du Merak: kalitatez bizi dendak?

Hiru zatitan banatutako lokala izango da. Batetik, denda. Belar-dendako produktuak, bertako nekazarien barazkiak eta ehungintza ekologikoa izango dira eskuragai. Bestetik, terapia alternatiboak ere eskainiko ditut, hasiera batean biomagnetismoa eta nutrizionismoa. Bestelako terapietara ez diet, noski, aterik ixten.

Azkenik, monitoretza ere egingo dugu. Yogarekin hasiko gara momentuz, nahiz eta lokaleko gela hori haurren tailerrak eta beste hainbat arlo lantzeko ere erabili nahiko nukeen, esaterako, helduen mantentzea eta biodantza. Ireki eta gero zehaztuko ditut zerbitzu horiek.

Zerk eraman zaitu Aiara?

Batik bat, kokapenak eta lokalak. Hasiera batean zalantzan aritu nintzen Orion ireki edo ez, baina Aian egokitu zitzaidan lokala nahi nuenerako

aproposa zela ikusita, han irekitzea erabaki nuen azkenik. Gainera, Orion badago belar-denda bat jada, eta horrek ere animatu ninduen Aian probatzera.

Ez dut uste, bestalde, kokalekua arazo bat izan daitekeenik. Azken batean, giro honetan mugitzen den jendea behar den tokira mugitzen da, gustura badago behintzat.

Arropa ekologikoa, tailerrak, terapia alternatiboak... Zer da halako proiektu berezi bati ekiteko beharrezkoena?

Oroz gain, gauzak garbi edukitzea. Badakit nire helburua zein den, eta horren bila noa. Horrelako proiektu alternatibo bat aurrera eraman nahi duenarentzat funtsezkoa da ondo informatzea, gauzak ondo begiratzea eta lokala ondo aukeratzea.

Ahal den neurrian, norbere kabuz aritzea ere garrantzizkoa da, besteek egiten dutena oso kontuan izan gabe: norbere

izaera eta nahia jarraitzea nabarmenduko nituzke. Ondokoari begiratzea kaltegarria izan ohi da horrelakoetan, arriskatzen ari zalera ikusten baituzu garbi. Ordea, saiatzen denak fruituak jasotzen ditu, eta norbere sentipenari jarraitu behar zaio. Beldurrarekin ez dugu ezer ere egiten.

Arrisku puntu hori sentitu duzu Aiaren aldeko apustuan?

Halako dendak ohikoagoak dira hirietan, ez hala herri txikietan. Baina Aia asko hazten ari da azkenaldian, gazte asko dago, eta nire ustez umeen elikaduraren eta ongizatearen kontzientzia handia garatzen ari gara, orokorrean, denbora gutxian. Nire iritziz harrera ona izan dezake negozioak.

Nondik datorkizu denda irekitzeko nahia?

Nire bizipen propioek eraman naute Merak irekitzera. Urteak daramatzat terapeuten eta terapia naturalen munduan barneratzen eta esperientzia biltzen. Haiei esker bizi kalitatea hobetu dut, beste pertsona bat naiz. Norbere esperientziatik abiatzea ere oinarritzeko iruditzen zait horrelako proiektuetarako.

Azken finean, norbera gustura egoteak eta sentitzen duena egiteak ziurtasuna eta goxotasuna transmititzen dute, eta hori funtsezkoa da bezeroak zaintzeko. Gertutasun hori izan ezean, nekez etorriko zaizu inor.

"Norberaren bideari eutsi behar zaio"

ELENE TAMAYO DISEINATZAILEA ETA ILUSTRATZAILEA

Artea duzu ogibide: zein diziplinekin egiten duzu lan?

Teknika artistiko ezberdinak lantzen ditut, batik bat ilustrazioa, zeramika eta estanpazioa. Izatez, ilustrazioa da gehien egiten dudana. Madrilen loradenda batean ere aritu nintzen lanean —sei urte egin ditut han bizitzen—. Alor hori ere oso gustuko dut.

Arteaz bizitzeko, aldea dago Orion edo Madrilen bizi?

Handia. Hasieratik nekien Oriora bueltatuko nintzela. Batetik, familia hemen dudalako, eta, bestetik, inspirazio iturri paregabea delako. Madrilekin edo Bilborekin alderatuta, ordea, zailtasun asko ikusten ditut ez Orion bereziki, baina bai Gipuzkoa mailan. Zeramika aldetik adibidez, tailerrak egon badaude, baina ez dute beste lekuetan bezala funtzionatzen. Esaterako, zeramikarako labea behar izan dudanean laguntzeko prest dagoen tailerrik ez dut aurkitu, eta, Madrilen, kontrara, aise uzten zizuten (pribatuak izanda ere) labeak-eta erabiltzen.

Online salmentak eskaintzen dituzu: nolakoa deritzozu egungo zure egoerari? Zer harrera izan duzu herrian?

Ona. Beti izan da hala. Madrilen nengoela ere Euskal Herrira bidaltzen nituen pakete gehienak, gehien bat Oriora eta inguruko herrietara. Espazioa han nuen, baina



bezeroak eta ikusleria hemen. Merkatuetan, esaterako, Madrilen gutxiago saltzen nuen, nire ustez hemen eskuz egindako obrak gehiago apreziatzen direlako. Alde horretatik, hemengo egoera hobe da.

Zer planteamendu duzu etorkizunerako?

Martxoa amaieran bueltatu nintzenetik ikuspuntua aldatu dut, eta nire kontura tailer bat irekitzeko ideia dut. Lokala hartu beharko dut beraz. Lehen, etxean egindakoa saltzen nuen, besterik gabe. Orain, osterara, beste espazio bat izatea komenigarria iruditzen zait, erakusleiho moduan ere balio lezakeena; nire lanak jendeari erakusteko toki bat, artista-estudio moduko bat. Azken batean, etxea txikia gelditzen da, beharrezkoa dut labea, honek beroa sortzen du... Horrez gain, uste dut Orioko gazteak eskulanak egin eta mundu hori ezagutzeko gogoz daudela.

Etorkizun hurbilean, arteak

Orion goraka egitea espero daiteke?

Gustatuko litzaidake hori ezagutzea. Izan ere, ez naiz herriko sortzaile bakarra, eta Oriok erlazio zuzena du artearekin. Oteiza etxekoa dugu, eta, nolabait, herrian haren aitortza galdu dela uste dut. Herriko sortzaileen tailer geiago izatea herriaren izaera hori nabarmentzeko modu bat izan liteke.

Zein da proiektu artistiko bat burutzeko beharrezkoena?

Gogoz saiatzea. Beti izango dira aldekoak edo aurkakoak, baina jarraitu egin behar da bakoitzaren bidearekin. Gainera, inoiz ez da lehenengoan ateratzen. Nire kasuan, esaterako, proiektuaren hastapenean gorakada bat izan nuen, baina gero beherakada txiki bat. Ohikoena da hori gertatzea. Ordea, une horretarako jada inbertituta dago denbora eta esfortzua, eta berdin jarraitu behar da. Eta saiatu. Saiatu, beti.

"Lokal batek izaera propioa izatea ezinbestekoa da"

ANE OTAMENDI THE PASS DENDA ETA KAFETEGIAREN ARDURADUNA



Zer balorazio egiten duzue The Pass-ek izan duen harreraren inguruan?

Hasiera batean ez genuen aurreikuspenik, ez genuen horretan pentsatu. Lokala egokitze lanak egiten ari ginenean, oster, beldur puntu bat sartu zitzaigun, ez baikenekien jendearen erantzuna zein izango zen. Irekitakoan, ordea, jendea hurreratu zen. Gainera, nahiz eta gazte estiloko denda dirudien, adin guztietako jendea etortzen da, eta hori asko gustatzen zaigu.

Zergatik Orion? Zarautzek eta Donostiak, esaterako, aukera hobeak dirudite halako proiektu batentzat.

Bai, egia da. Zarautz edo Donostia aukeratu izana zentzuzkoagoa zatekeela dirudi, biztanle kopuruaren nahiz surfaren ikuspuntutik. Gainera, Donostian bizi gara, eta lehen ideia han irekitzea izan zen. Gure nahia ez zen ordea surf denda bat zabaltzea, arropa

denda eta kafetegia uztartzea baizik. Ideia horretara gaude lerratuta hasieratik, eta surfak ez du hainbesteko garrantzia The Passi dagokionez, presentzia nabaria badu ere. Bestalde, lokala Josebaren [proiektuko beste kidea] familiarena da; libre zegoen, hutsik urte pila batean, eta ni lanik gabe geratu nintzenean lokala eskaini ziguten, eta hemen ireki genuen.

Zer garrantzia du denda batek izaera markatu bat izateak?

Ehuneko ehuna, nire ustez. Irekiko genuen edo ez jakin gabe ere, betidanik landu izan dugu proiektu hau, aspalditik dihardugu gustuko ideiak eta adibideak aintzat hartzen. Oso garbi geneukan nahi genuena. Kontrara, zalantzak badituzu eta besteek gomendatutakoa egiten hasten bazara, dendaren izaera jartzen duzu jokoan. Askotan iradoki digute, komertzialek esaterako, pintxoak, ardoa edota

garagardo-iturria jartzea, jende gehiago erakarriko dugulakoan, baina garbi dugu zer nahi dugun eta zer ez.

Badago, orduan, gustuaren eta gertutasunaren arteko erlaziorik?

Nire ustez bai. Jendea tokia gustatzen zaiolako etortzen da, hemen dagoenarekin identifikatuta sentitzen delako, nahiz eta gure estilokoa ez izan; hori gustura ikusten gaituztelako gertatzen da. Hau ohiko taberna balitz ez ginateke gustura egongo, eta, gu gogoz kontra ikustean, jendea ez litzateke berdin etorriko. Ez ditugu modak jarraitzen, ez nukeelako jakingo gustuko ez dudana zerbait saltzen.

Zentzu gehiago du proiektu berritzaile batek tradizioari lotuago dauden herri txikietan? Indartu egiten zaituzte horrek, ala kaltetu?

Bi aldeak ditu. Herrian gurea bezalako besterik ez dagoenez, jendea animatu egiten da. Eskaintzen ditugun yoga eta gosari formulak, esaterako, izugarritzko arrakasta du, eta jendeak askotan azaldu digu esker ona. Baina ezin da alderatu sei mila biztanleko herria ia berrehun mila biztanleko hiriarekin, izan dezakezun bezero abanikoa asko murrizten delako hemen.

Zer aholkatuko zenioke zuena bezalako proiektu bat eskuartean duenari?

Hau da nire aholkua: buruan oso argi baduzu gustuko proiektu bat, eta egiteko aukera suertatuz gero, egin. ■

PAKO IMAZ

PERTSIANAK
aluminioa
motorrak
automatismoak
konponketak

600 70 52 27 · 943-13 29 01
pakoimaz@hotmail.com · ORIO

Portu
Erregea - Jatorria

Kazolita, baserriko oilaskoa,
parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g · AIA
943-89 44 34

Sagasti
LEIHOAK

Tel.: 943-13 00 77 - Fax 943-53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Eusko Gudari, 7
20810 Orio

Kaltazteko materialak
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

BODEGON

Sarasua

info@bodegonsarasua.es | www.bodegonsarasua.com | Erreserbak: 943-83 00 05

Seguros Bilbao Santi Barranco
Orioko Ordezkarria

Endaia Enparantza, 1 · ORIO · sbarranco@segurosbilbao.com
943-11 16 00 · 688 71 48 69

Sinergia
fisioterapia eta ikerkuntza

Ibai ondo, 1 behea · ORIO
943-13 05 77 · 685 71 85 95
sinergiafisioterapia.com

• **Lesioak:** bihurdurak, tendinitisiak, zointiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaixotasunak haur eta helduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldiko tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekupeazioa.

• **Tratamenduak:** terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesiopina, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresiboa (GAH), REDCORD.

Orioko Herri Ikastola
ORIO GARA

Abeslari kalea, 8
943-83 47 04
Fax-a: 943-13 09 38
orio@ikastola.eus
www.oriokoikastola.eus

SU KIA
TABERNA · JATETXEA

Eguneko menua
Asteburuetakoa
Oilaskoak eramateko
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Terraza ederra
(alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, behea 1
ORIO · 943-89 21 29

XIXARIO
Erretegia

Txuleta eta arrainak
parrillan

Eusko Gudari kalea 2 · ORIO · 943-83 00 19

Zaragueta IPI
HERRI ESKOLA 2-16

943-89 92 43
012137aa@hezkuntza.net

Gauzak



GARBIÑE MANTEROLA

Diogenes sindromea dudala onartu behar. Gauza materialekiko halako lotura estua garatzen dut. Askori izen propioa jartzeraino. Vladimir du izena nire ordenagailuak. Bixipox II.a da nire kaleko bizikleta. Bixipox I.a erretiratu behar nuela mekanikoak agindu zidan, bihotzarekin baino buruarekin hartu behar direla erabakiak esan ondotik. Bere ordezkorekin kalera noan bakoitzean originalari adarrak jartzen dizkiodala iruditzen zait.

Ez dira etxe barrukoak maite ditudan bakarrak. Bai baitira kalean nire sentitzen ditudan gauzak ere. Nire-nireak baino, gure-gureak direnak. Komunitatearenak. Eta haiei ezin diogenesik aplikatu. Haietako baten gainbehera bizitzen ari gara azken asteetan. Indargymeko aerobik zaleez ari naiz. Ba al da balore historiko handiagorik duen paretarik herrian. Gorde dezagun zati bat gutxienez eta Berlingo harresiaren pare herriko plazan-edo jarri. Edo txikitu dezagun eta puskaz puska saldu herrian.

Egunotan eman dit zer pentsatua nire gaixotasun honek. Irudiak ikusi eta gauza materialak etortzen zaizkit behin eta berriz burura. Nire trasteak, herriko kaleetan dauden objektuak. Laba erreka maldan behera nola egiten duen ikustean zirrara berezia sortzen dit, baita sentimendu kontrajarriak ere. La Palman egon nahi nuke ikuskizun hura ikusteko. Hurbiletik bizi, berriki bisitatutako tokia. Baina nire zera guztiak, nire herriko kaleak salbu diren bitartean.

Cumbre Vieja bolkana zeharkatu genuen alderik alde orain bi hilabete eskas, orain sinesgaitza badirudi ere. Harri txintzarrez josia zegoen bide osoa eta zapatilak sarritan askatu eta garbitu behar izan genituen hura gurutzatzean. Bero zen paraje haietan, baina nork pentsa 1.000 gradutik gora igoko zenik termometroa irailean sartu berri. Deskantsurako ibili genuen El Pasoko etxean orain ez da lasaitasunik. Labak jan du gure igerilekua. Ezin pausorik eman hango kaleetan. Bolkan haren beste bi erupziotako laba gogortua zapaldu genuen gure oporraldian, 1971koa eta 1949koa. Noiz zapalduko ote dugu orain isurtzen ari dena. Zer ez ote du zapalduko bere bidean arroka erreka goriak.

Ura eta sua, belaunetik behera dio esaera zaharrak. Palmakoek ere izango dute antzeko esamolderik sumendiko kontuentzat. Haien artean ere izango da Diogenes maila ezberdinetako jendea. Baina lotura handia edo txikia izan, seguru naiz ondo sufritzen ariko direla Cumbre Vieja magalean beraien jabetzak dituztenak, zituztenak. Zer herio izango den korrika batean objektu gutxi batzuk aukeratzea. Esan, zuk zer hartuko zenuke zure etxetik 5 minutu bakarrik bazenitu horretarako? Herriko zer txoko lurpean ikusteak minduko zintuzke gehien? ■■■

**CUMBRE VIEJAKO
BOLKANA ZEHARKATU
GENUEN ALDERIK ALDE
ORAIN BI HILABETE
ESKAS**

Euskarari dagokionez, nolako Orio nahi dugu 10 urte barru? (II)



TESTUA: EH BILDU

Orio arnasgunea da; euskara eroso eta modu naturalean bizi den herritzat daukagu, baina gaur egoera honetan egotea herritarron ekinari esker izan da. Izan ditzakegu azpiegiturak, ekipamenduak eta bestelako ondare materialak, baina, herri izateko, ezinbestekoak zaizkigu gure hizkuntza eta kultura. Horiek gabe ez gara herri.

Hemendik hamar urtera, pertsona eleaniztunez osatuta egongo da gure herria eta, aldi berean, kultura-aniztasuna errespetatuko duen Orio euskaldun bat nahi dugu.

Egoera berri horrek erantzun berriak eskatzen ditu eta gutako bakoitzak izan behar du euskararen euskarri eta arnas, inoiz iritsi gabeko pertsonengana iristeaz gain, haiengan eragiteko. Harremanek eraldatzen baitute pertsona; eta pertsonak, mundua.

Euskaraz jo behar ditugu ateak, harresiak bota, gure arteko mugak gainditu. Euskarak integrazioarako tresna bihurtu behar du, Euskara ez baita hizkuntza bakarrik, Euskara gure mundurako giltza baita.

Hemendik hamarkada batera euskara etengabe eta esparru orotan erabiltzen duten oriotar askeak nahi ditugu. Finean, Orio euskararen herria, guztion herria, izan dadila! ■■■



TESTUA: EAJ-PNV

Hemendik hamar urtera euskaraz biziko den Orio bat nahi dugu, lehenbiziko hitza euskaraz egiteko joera duten eta bizitzaren esparru guztietan euskaraz aritzeko gai izango diren oriotarrez osatua. Etxean eta kalean. Lanean eta aisian. Eskolan eta jolasean. Orio euskalduna.


Euskara erakargarri egiten jakingo duena. Teknologia berriak baliatuko dituen. Aldaketen aurrean euskara babestu eta hauspotuko duena. Herriaren hazkundean euskararentzako aukera berriak aurkituko dituen. Orio euskaltzalea.

Orio musikari, irakurle, bertsolari, olerkari, idazle, kirolari, antzerkilaria... Orio sortzaile eta eragilea euskal hizkuntzan.

Bertara datorrenari euskara eskaini eta euskararen murgiltzeko aukera emango dion herria. Mintzalagun. Euskara ikasteko aukerak eskainiko dituen. Udalekuan. Euskara eskola eta errefortzutan. Euskaldun berriak sortuko dituen. Orio eskuzabal eta emankorra.

Eta, aldi berean, euskara ez dakienari ere arrotza egingo ez zaion herria. Orio abegitsu, elebidun, eleaniztuna.

Berritzeko unea heldu zaion euskara sustatzeko udal plan berriaren lanketan gogotsu arituko gara. Bizi-bizi! ■■■



*Gauza berriak jaso ditugu
pasa gure erakusketatik!*

Beldurrik gabe galdetu.

*Neurri ezberdinetara
egokitzen gara.*



Estrata 3. Pab. Errasti (Aginaga Auzoa) 20170 USURBIL
Tel./FAX-a: 943-36 93 59 · Mugikorra: 676 35 56 35
mueblesaguinaga@mueblesaguinaga.com



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea sukaldea
bainugela ...
leihoak etxeko altzariak

eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu



Geltoki bidea, 1 · ZARAUZ · ☎ 943-13 50 16 · www.biyona.net

Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: tripaki, odolki,
txekorra, txorizo, kroketak...

**HARATEGIA
PATXI
OLIDEN
URDAITEGIA**

Eusko Gudari, 25 · 943-83 00 10

URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

Eusko Gudari, 5 · ORIO · 943-83 12 36

**ZINKU
ERAIKUNTZAK**

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzaren erreformak
- Teilatutak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

*deitu eta eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe*

Ander Zinkunegi
667 74 02 79

Zarautz

Hileta Zerbitzuak
1962. urtetik zure zerbitzura

24 ordu zure zerbitzura
Beilatokia · Lekualdatzeak ·
Eginbide guztien tramitazioa

Araba kalea 35 · ZARAUTZ
943-89 49 37
info@zarautzhiletazerbitzuak.eus

bai
zerbitzuak

Abenduak
31 arteko
promozioa

ORIO -ko Bilbao Aseguroarekin kontratatuz
-n dohan kontsumitu


Bizitza eta osasun polizetan* 50 €ko bonoa
Bestelako aseguruetan* 25 €ko bonoa

Seguros Bilbao

*125 €tik gorako polizetan

Sudokua

Jose Luis Zumeta gure margolari maitatu-
enetako bat da, eta hain zuzen horregatik, bere
deiturarekin osatu beharko duzu sudokua, alegia
Z, U, M, E, T eta A hizkiekin. Gogoratu hizki




bakoitzak behin
agertu behar
duela lerro,
zutabe eta area
bakoitzeko.



Hitz gurutzatua

Idatzi irudi txikien izenak dagokien arkatzean.
Ondoren, lauki nabarmenduetan egokitu diren
hizkiak hartu eta ordenan jarri behean (goitik
beherakoa errespetatuz). Ongi eginez gero,
Zumeta margolariaren sorterrria azalduko zaizu.



Zeeeeer??

Zumetak koadro asko margotu zituen. Beste
margolari oso ezagun baten artelan bat ere izan
zuen gogoan, eta artelan horrek eta gertaerak
inspiratuta, obra bat sortu zuen. Zein zen
margolari ezagun horren artelana? Maripurtzilek
badaki, eta esaten ari zaigu, baina konturatzen ote
da ez diogula putzik ulertzen?

Lasai, ez da-eta larria. Ezaba itzazu B, F, L U, M
eta V guztiak eta hortxe agertuko zaizu.






Hamarrekoa


Aurki itzazu goiko
Zumetaren eta honokoaren
arteko aldeak. Hamar dira
guztira.





Itzala



Bota dadoa!



Zazpi dado hauetatik lau bat datoz irudi zabalduarekin, eta beste hirurak ez. Zeintzuk dira onak? Asmatzea zaila baldin bazaizu, irudi zabaldua paper batean marraztu eta dadoa muntatu. Aise konturatuko zara zeintzuk diren txarrak eta zeintzuk onak.



DOMINOAN

Bete itzazu lauki zuriak, domino zati honek zentzua izan dezan.

Soluzioak ikusteko: www.plazanbazan.eus/

IRAGARKI SAILKATUAK

ALOKAIRUA

Autokarabana eta karabanentzat aparkalekuak alokagai, garaje estalia eta beharrezko ekipamendua- rekin. Aia-Orio. Telefonoa: 620 85 69 53 (goizez).

Alokatzeko garaje bila Goiko Kalen. Telefonoa: 690 27 28 42.

Garaje bat alokatzen da Anibarko Portuan. Telefonoa: 649 22 87 87.

Garaje ibxia alokagai Orion, Baxoalde kalean. Informazio gehiagorako, deitu 615 15 03 14 zembakira.

LAN BILA

Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketako lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Telefonoa: 642 60 38.

Lan bila nabil, etxe garbiketako egiteko prest. Telefonoa: 641 44 60 70.

Etxeko lanak egiteko edo etxeko lanak egiteko prest nago. Telefonoa: 631 82 44 52.

Lan bila dabilen emakumea naiz. Bikaina naiz haurrak zaintzen, eta garrantzi handia ematen diot garbitasunari eta txukuntasunari. Arduratsua naiz, eta arreta handia jartzen dut nire lanean. Berehala lanean hasteko prest nago. Telefonoa: 602 08 98 86.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. Barneko zein kanpoko langile bezala, edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Samanta. Telefonoa: 643 85 78 54.

Iragarkietarako bokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943-83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Emakumea adineko pertsonak zaintzeko edo orduka lan egiteko prest. Harremanetarako deitu honako telefono zembakira: 697 65 05 19.

Ingeleseko klase partikularrek emateko prest nago. 20 urteko neska oriotarra naiz, ordutegi malgua daukat. Telefonoa: 690 06 63 11.

Emakume gaztea etxeko lanak, garbiketako edo tabernako lanak egiteko eskaintzen da. Egun osoa edo orduka. Telefonoa: 627 09 07 06.

16 urteko neska, udaran partikularrek emateko prest. LHko edozein ikasgai, musika eta ingelesa barne. Telefonoa: 688 73 00 90. Arantza.

21 urte dituen Orioko neska bat naiz. Udan goizez haurrak zaintzeko prest nago. Asko gustatzen zaizkit haurrak eta primeran moldatzen naiz beraiekin. Interesatuak deitu honako telefono zembakira: 629 21 28 38.

Neska gaztea haurrak eta adinekoak zaintzeko prest, irailetik aurrera. Esperientzia dut zeregin horretan eta baita prestutasun osoa ere. Jarri harremanetan honako telefono zembakian: 695 37 82 60. Estrella Reyes.

SALGAI

Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFIS motorra. Abendura arte aseguru ordaindua du. 3.500 euro. Telefonoa: 657 77 45 11.

Zerrama, apotea eta txerrikumeak salgai Usurbileko baserri batean. Interesik izanez gero deitu 607 66 83 03 zembakira. Joxe Krux.

BESTELAKOAK

Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin du zer egoeratan dagoen: ITVa pasa gabe, kolpeekin, aberiatuta... Telefonoa: 623 17 95 37.

Orion bizi den familia bat autokontsumorako baratze ekologiko bat egiteko lurzoru baten bila dabil alokairuan Orion edo inguruan. Telefonoa: 657 71 96 14.

ITSASOA

Eguna	Itsasgora	Itsasbehera	Ilgaria
1	01:13 eta 13:40	07:14 eta 20:07	●
2	02:22 eta 14:39	08:21 eta 20:58	●
3	03:10 eta 15:23	09:08 eta 21:38	●
4	03:50 eta 16:02	09:47 eta 22:15	●
5	04:26 eta 16:39	10:23 eta 22:50	●
6	05:02 eta 17:16	11:00 eta 23:26	●
7	05:38 eta 17:55	11:38	●
8	06:16 eta 18:35	00:04 eta 12:18	●
9	06:55 eta 19:18	00:43 eta 13:00	●
10	07:38 eta 20:04	01:25 eta 13:46	●
11	08:27 eta 20:58	02:10 eta 14:38	●
12	09:26 eta 22:08	03:03 eta 15:40	●
13	10:45 eta 23:45	04:11 eta 17:01	●
14	12:20	05:41 eta 18:37	●
15	01:23 eta 13:43	07:15 eta 20:00	●
16	02:33 eta 14:45	08:24 eta 20:58	○
17	03:23 eta 15:33	09:14 eta 21:42	○
18	04:03 eta 16:13	09:55 eta 22:18	○
19	04:36 eta 16:48	10:31 eta 22:52	○
20	05:07 eta 17:20	11:06 eta 23:23	○
21	05:35 eta 17:50	11:39 eta 23:54	○
22	06:03 eta 18:20	13:11	○
23	06:31 eta 18:51	00:24 eta 12:43	○
24	07:00 eta 19:22	00:54 eta 13:16	○
25	07:31 eta 19:56	01:24 eta 13:50	○
26	08:06 eta 20:36	01:57 eta 14:28	○
27	08:50 eta 21:30	02:36 eta 15:16	○
28	09:52 eta 21:49	03:28 eta 16:25	○
29	11:21	04:46 eta 17:57	○
30	00:26 eta 12:50	06:21 eta 19:17	○
31	00:39 eta 12:55	06:35 eta 19:15	○

FARMAZIAK-URTARRILA

ZARAUTZ

8, 14 eta 26.	ETXEBERRIA: Gipuzkoa kalea, 17 / 943-83 23 98
12.	ESPARZA: Santuturri plaza, 5-6 / 943-50 47 83
9, 10, 15, 21 eta 27.	GALLO: Zigordia kalea, 17 / 943-13 40 19
13.	GARMINDE: Gipuzkoa kalea, 68 / 943-12 40 19
30, 31.	IRIARTE: Zinkunegi, Pilarxo Enea / 943-13 29 70
4, 5, 10, 28 eta 29.	ITURRIA: Kale Nagusia, 12 / 943-83 29 70
18.	LARRAÑAGA: S. Frantzisko, 16 / 943-13 38 14
16, 17, 22 eta 28.	REDONDO: Urdaneta kalea, 8 / 943-13 31 83
23 eta 24.	ZULAIKA: Bizkaia kalea, 41 / 943-13 39 94

AGENDA

ORIO

URRIAK 15, OSTIRALA

Txomin Artolaren kontzertua.
Arraunetxeko aretoan, 19:00etan.

URRIAK 24, IGANDEA

Kontzertua: Izaro.



URRIAK 29, OSTIRALA

Antzerkia: Jon Plazaola, Irabazi.
Arraunetxeko aretoan, 19:00etan.



AZAROAK 1-7

Heriotzari bizitza ematen' jaialdiaren barruan, horma berezia jarriko da

herrian, Hil aurretik nahi dut... esaldiarekin.

AZAROAK 2, ASTEARTEA

Zine forum: *Mendian hil, hirian hil. Kultur etxean*, 19:00etan. Iñaki Peña zuzendariak hartuko du parte bertan

AIA

URRIAK 30, LARUNBATA

Duatloia: Aiako I. Mendi Duatloia.

AZAROAK 6, OSTIRALA

Kontzertua: Esti eta Mikel Markez.



ARDORA
arraindegia

Eusko Gudari, 4
☎ 943-09 28 27 ☎ 623 47 57 52
ardoraarraindegia@yahoo.com
ORIO

IZARRA ELEKTROGAILUAK GURE APUSTUA %21a da

2021

TIEN21 DENDETAN EROSI ETA SARIA IRABAZI

PRODUKTU BATZUETAN

%21a OPARI^(*)

Ikusi baldintzak gune honetan: www.tien21.es **Tien21**

Eusko Gudari, 44 · 20810 Orio (Gipuzkoa)
izarraelectrodomesticos@gmail.com

Puntua jarrita

Josu Iribar.
(Doinua: Haizeak bidali du.)

1

Zer moduz joan zaizu aurtengo udara?

Zer moduz joan zaizu aurtengo udara?
Partiketa lanetan hona eta hara jai egunetan berriz triliri tralara ta konturatzera beste bat pasa da..

2

Taberna alden zeoze gutxiyo elizan egun eguzkitsutan hidratatu nintzan. Eguzkitan jendea sugandilen gisan orokorrean ez da horren txarran izan.

3

Ezin gendunez joan nahi gendun lekura etxe aldetik pasa deu ze ingo deu ba! Ongi etorri udazken ta adio uda ziaboga hartzeko garaia heldu da..

Hurrengo bertsolaria:

Ibon Arruti Aldape.

Puntua:


Izerdia bai franko banderarikan ez!.

Hasi Bertsotan atalean puntuka ariko dira bertsolariak. Oraingoan Josu Iribarri jarri dio puntua Josu Arrutik: "Zer moduz joan zaizu aurtengo udara?". Hurrengoari ere jarri dio puntua.

SAIOA PERONA



MARKETIN DIGITALA



- WEB DISEINUA ETA ANALITIKA
- SEO LANAK ETA SEM KANPAINAK
- SARE SOZIALEN KUDEAKETA
- BIDEO KORPORATIBOAK
- POSTA ELEKTRONIKO BIDEZKO MARKETINA

GUKA       ZERBITZUAK